

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

## **Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua**

2020-2021 ikasturtea

**Maria Dolores Agirreren**

**itzulpen-lanak**

**Egilea:** Eider Quertier Amiano

**Tutorea:** Isabel Etxeberria Ramirez

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila

## LABURPENA

Izenburuak berak iradokitzen duen moduan, Gradu Amaierako Lan honetan Maria Dolores Agirre itzultzaile eta irakaslearen itzulpen-lanak aztertuko ditugu. Agirrerren izena ez da oso ezaguna euskal itzulpengintzan; horregatik, gure lanaren helburu nagusia Maria Dolores Agirre hobe ezagutzera ematea da, bere itzulpen-lanen ikuspegi orokor bat eskainiz eta bere itzulpen-estiloa sakonago ikertuz. Horrela, gure ikerlana lau atal nagusitan banatu dugu.

Lehenik eta behin, Maria Dolores Agirrerren biografia laburra emango dugu, batez ere itzultzaile gisa egindako bidea aintzat hartuta. Bere ibilbidearen nondik norakoak azalduta, Agirrerren itzulpen-lanak banan-banan aurkeztuko ditugu, jatorrizko testu eta egileen inguruko informazioa eskainiz horretarako, eta baita itzulpenen inguruko datu garrantzitsuenak ere. Lehenengo atal horri amaiera emateko, Maria Dolores Agirrerren bestelako itzulpenak eta sormen-lanak aipatuko ditugu.

Bigarrenik, Maria Dolores Agirre garaiko testuinguru sozio-historikoan kokatuko dugu. Itzultzaile edo idazle bat ikertzen ari garenean, ohikoena testuinguru sozio-historikoa lehen atalean agertzea da. Lan honetan, ordea, hurrenkera aldatu dugu, horren bidez argiago ulertuko ditugulako Agirrek itzultzaile gisa hartu zituen erabakiak. Horrenbestez, bigarren atal honetan Maria Dolores Agirre bere testuinguru sozio-historikoan kokatuko dugu, bere jaiotza-dataren eta jubilazio urtearen arteko tarte ardatz hartuta.

Hirugarren atalean, Agirrek egindako itzulpen baten analisisia daukagu: *Iturri-agor* (1968) testuarena, hain zuzen ere. Itzulpena hiru mailatan aztertzearen bidez, Maria Dolores Agirrerren itzulpen-estiloa sakonago ezagutzeko aukera izango dugu. Hirugarren atal honetan, beraz, hiru mailatan aztertu dugu *Iturri-agor*: hasteko, dokumentuaren alde aurreko datuak aztertu ditugu, izenburuan eta egiletzan arreta jarritz. Jarraian, itzulpena maila makrotestualean analizatu dugu, eta hiru alderdiri erreparatu diegu: itzulpena osoa edo partziala den, testuaren banaketa jatorrizkoaren bera den eta pertsonaia nagusien izenak. Amaitzeko, hiru lagin aukeratu, eta *Iturri-agor* xehe-xehe aztertu dugu maila mikrotestualean.

Azkeneko atalak, laugarrenak, ikerlanetik atera ditugun ondorioak biltzen ditu. Alde batetik, Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa aztertzeatik ateratako ondorioak zerrendatu ditugu; bestetik, *Iturri-agor* analizatzeatik atera ditugun ondorio espezifikoak.

Bibliografia txertatu dugu ondorioen atalaren ostean. Horrez gain, Gradu Amaierako Lan honi bukaera emateko, eranskin gisa Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gelatik lortutako *Iturri-agor* itzulpena gehitu dugu. Izan ere, horrela irakurleek aukera izango dute hirugarren atalean azaldutako informazioa ikusteko eta egiaztatzeko.

## AURKIBIDEA

LABURPENA .....	1
AURKIBIDEA.....	3
IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA .....	4
1. SARRERA.....	5
1.1. Maria Dolores Agirrereren biografia laburra .....	6
1.2. Agirrereren itzulpenak eta gainerako lanak .....	7
2. GARAIKO TESTUINGURU SOZIO-HISTORIKOA .....	15
2.1. Gerraurrea (1903-1936) .....	15
2.2. Frankismoko lehen urteak (1940-1960).....	16
2.3. Frankismoko azkeneko urteak (1960-1973).....	17
3. <i>ITURRI-AGOR</i> ITZULPENAREN AZTERKETA.....	19
3.1. Aztertutako dokumentuaren aurkezpena.....	19
3.2. Metodologia .....	21
3.3. Aldez aurreko datuak .....	22
3.4. Maila makrotestuala .....	22
3.5. Maila mikrotestuala.....	25
4. ONDORIOAK.....	30
5. BIBLIOGRAFIA .....	32
ERANSKINA: MARIA DOLORES AGIRREREN <i>ITURRI-AGOR</i> .....	34

## **IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA**

### **IRUDIAK:**

Irudia 1: Iruneko jaietako programaren azken orrialdea.....	10
Irudia 2: <i>Iturri-agor</i> obraren esku-programa.....	21

### **TAULAK:**

Taula 1: Hikaren eta zukaren erabilera.....	26
Taula 2: Euskarazko esapideak.....	27
Taula 3: Desbiderapenak itzulpenean.....	28

## 1. SARRERA

Euskal itzulpenak gure artean mendeak daramatzan arren, askotan arreta eskasa jasotzen duen diziplina da. Hori gutxi balitz, Euskal Herriko itzulpenaren historia aztertzen dugunean gehienetan ikuspegi maskulintik soilik ikertzen dugu; hau da, gizonezko itzultzaileen ekarpenak bakarrik hartzen ditugu kontuan. Nolanahi ere, euskararako itzulpengintza ez da inoiz izan gizonezkoen ogibidea bakarrik, historian zehar euskal emakume itzultzaile ugari egon baitira.

Maria Dolores Agirre errezildarra dugu horietako bat. Euskal itzulpenaren historian nahiko oharkabean pasatu den itzultzailea da, eta ondorioz oso ezaguna ez bada ere, ekarpen baliotsua egin zion XX. mendearen bigarren erdialdeko antzerki-itzulpenari. Zoritxarrez, esan bezala, ez da oso ezaguna euskal itzultzaile aitzindarien artean, eta gaur egun gutxi dakigu bere itzulpen-estiloari eta itzulpenei buruz.

Hutsune hori ikusita erabaki genuen Gradu Amaierako lan hau Maria Dolores Agirre itzultzaileari buruz egitea. Gure lanaren helburu nagusia, beraz, Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa sakonago aztertzea da, eta horren bidez hobe ezagutzera ematea.

Helburu hori ardatz edukita, lana lau atal nagusitan banatu dugu: lehenik eta behin, Maria Dolores Agirrerren biografia laburra eskainiko dugu, eta horrekin batera itzultzaile gisa egindako lan guztien zein bestelako lanen ikuspegi orokor bat emango dugu. Bigarrenik, Agirre bere testuinguru sozio-historikoan kokatuko dugu, egindako itzulpenen generoa aukeratzeko zergatia ulertzeko. Hirugarrenik, Maria Dolores Agirrerren itzulpen-estiloa sakonago ezagutzeko, bere itzulpen bat aukeratu dugu: *Iturri-agor* (1968), eta testu horren analisisa egin dugu hiru mailatan: hasteko, dokumentuaren alde zurreko datuak aztertu ditugu; gero, itzulpena maila makrotestuarekin analizatu dugu, eta, amaitzeko, *Iturri-agor* maila mikrotestuarekin ikertu dugu hiru lagin aukeratuta. Bukatzeko, lanaren azkeneko atalean aurkeztuko ditugu ikerlanetik ateratako ondorio nagusiak.

## 1.1. Maria Dolores Agirrerren biografia laburra

Maria Dolores Agirre Aizpuru 1903ko ekainaren 8an sortu zen Errezilen, Gipuzkoan. Herriko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamabi urtera, eta 1917an, hamalau urte besterik ez zituela, Donostiara joan zen maistra ikasketak burutzera. Nahiz eta gaur egun ezinezkoa irudi, maistra ikasketak egin zuten lehen emakumeetako bat izan zen Maria Dolores Agirre (Auzmendi, 2002: 6).

Familiagandik eta txiki-txikitatik jaso zuen Agirrek euskaltzaletasuna; hain zuzen ere, ikasketak amaitu aurretik jada hasia zen bere etxean euskara klaseak ematen, osatzen ari zen familia diruz lagundu nahi zuelako. Dena den, euskararekiko eta Euskal Herriarekiko zuen maitasuna hain handia zen, non ez baitzuen lan horrekin nahikoa izan. Horrela, Maria Dolores Agirre euskara irakasten, antzerkigintzan, itzultzen, irratian, eta, oro har, euskara erabiltzen zen leku ia guztietan ibili zen lanean bizitza osoan zehar (Auzmendi, 2002: 3).

Maria Dolores Agirrek itzultzaile gisa egin zuen bideari begira, ezinbestekoa da garaiko Euskal Izkera ta Iztunde Ikastola aipatzea. Toribio Alzaga zen zuzendaria eta, nahiz eta Agirre hasiera batean ikasle gisa bildu, 1932. urtean irakasle lanpostu bat atera zuen Donostiako Udalak. Probetara aurkeztu, eta irabazi ere irakasle postua irabazi egin zuen Maria Dolores Agirrek. 1933an ekin zion lanbide berriari; handik hiru urtera, ordea, gerra piztu zen, eta horrek etenaldi luzea ekarri zuen bai Agirrerentzat, bai Ikastolarentzat (Auzmendi, 2002: 13).

Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolaren bigarren aroa 1953an hasi zen, baina oraingoa Maria Dolores Agirrerren zuzendaritzapean, Toribio Alzaga 1941ean zendu baitzen (Urkizu, 2003: 31). Horrenbestez, aurrerantzean bi eginkizun bete behar izan zituen Agirrek: alde batetik, euskara irakastea eta, bestetik, urtero antzerki emanaldi bat ematea San Tomas egunean. Zeregin horrek bultzatuta ekin zion Maria Dolores Agirrek itzultzaile lanari, bere hitzetan: «Bihotzak eraginda, euskaltzaletasunak bultzatuta, gure herria izango nuen mintzagai eta mintza-maisu. Haren bihotz pilpirak entzun, larri-minak jaso eta garaian garaiko kezka eta sentipen guztiak herri-euskaraz antzerkian mamitu» (Auzmendi, 2002: 16-17).

Agirre 1953tik 1973an jubilatuta zen arte ibili zen itzultzaile lanetan, eta tarte horretan hamahiru antzezlan itzuli zituen oso euskara jator, bizi eta ulergarrian. Kronologikoki aipatuz gero: Ghéonen *Lourdesko lorea* (1958), Tagoreren *Amal* (1962), Casonaren

*Txalupak jaberik ez* (1963), Lozanoren *Oriko txoria Orin* (1965), Gazzoren *Txapela bete euri* (1966), Casonaren *Irugarren itza* (1967), Lorcaren *Iturri-agor* (1968), Soteloren *Etzan ate joka etorri* (1968), Lorcaren *Iturriko Urretxindorrak* (1968), Rubioren *Beste ertza* (1970), Guerrero Urreistiren *Iparragirre* (1971), Vallejoren *Illumpe goritan* (1973) eta Pío Barojaren *Altzateko jaun* (1979, Felipe Yurramendirekin batera itzulia).

## **1.2. Agirrereren itzulpenak eta gainerako lanak**

Lan honen helburu nagusienetako bat da Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa sakonago aztertzea. Horregatik, aipatu berri ditugun itzulpenen jatorrizko testuak eta autoreak ikertu ditugu, horren bidez bere joerak zehatzago ezagutzeko aukera dugulako.

Aipatu dugu Maria Dolores Agirrek egin zuen lehen itzulpena *Lourdesko lorea* izan zela; obra 1958an estreinatu zen Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Jatorrizko idazlea Henri Vangeon (ezizenez Henri Ghéon) da. Ghéon 1875ean jaio zen Bray-sur-Seine herrian, Frantzia, eta 1944an hil zen Parisen. Antzezlanak idazteaz gain, poemak eta kritikak ere idatzi zituen, eta mediku aritu zen Lehen Mundu Gerran. Oso katolikoa omen zen, eta horregatik bere obra asko erlijioarekin lotuta daude.

*Lourdesko lorea* (1958) itzulpenaren sorburu testuari begira, zailtasunak izan genituen jatorrizkoa identifikatzeko, Ghéonen obren artean ez baitago antzeko izenbururik duen antzezlanik. Nolanahi ere, Patri Urkizuk (2003: 36) honakoa dio Agirrereren itzulpenari buruz: «*Lourdesko lorea* antzerkiak Bernardetxoren bizitza aurkezten zuen, hots, *Lourdesko gertakizun-edesti egikorra, bost ekitaldi ta amabi irudi laukitan*». Informazio hori kontuan hartuta, itxura guztien arabera jatorrizkoa Ghéonen *Bernadette devant Marie: histoire véridique du fait de Lourdes en cinq actes et douze tableaux plus un prologue légendaire* da, zeina *Les Cahiers du théâtre chrétien* (1931) izeneko bildumaren barruan argitaratu baitzen. Gure hipotesia egiaztatu nahian, Lurdes Auzmendi eta Patri Urkizuri galdetzea erabaki genuen, biek aztertu baitzuten Maria Dolores Agirre eta agian gure zalantzak argitzeko gai ziren. Zoritxarrez, haiek ere ez zekiten zein zen jatorrizkoa; hala ere, gaiagatik eta izenburuagatik litekeena aipatutako obra izatea zela esan ziguten. Orduan, Ghéonen ustezko jatorrizkoa eta Agirrereren itzulpena lortzen saiatu ginen bi obrak alderatu ahal izateko, baina ez genuen sorburu testuaren arrastorik inon aurkitu: Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gelaren katalogoan bakarrik argitaratu gabeko *Lourdesko lorea* (1958) topatu genuen. Beraz, gure hipotesiak onargarria badirudien arren, ezin izan dugu erabateko ondorioz egiaztatu.



1962koa da Agirreren bigarren itzulpena: Rabindranath Tagore poeta bengalarraren *Amal*, zeina Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatu baitzen. Jatorrizko autore, esan bezala, Rabindranath Tagore da. Tagore 1861ean sortu zen Kalkutan, Indian, eta 1941ean hil zen. Besteak beste, olerkiak, ipuinak eta antzezlanak idazten ibilitakoa, 1913an Literaturako Nobel Saria eman zioten. Gaur egun oso ezagunak dira bere antzezlan dramatikoak, eta horien artean dugu *Amal* itzulpenaren jatorrizkoa: *Dak Ghar*, 1912an idatzia eta 1917an estreinatua Jorasanko antzokian, Kalkutan. Obran, *Amal* izeneko umea da protagonista (hortik Agirrek *Amal* deitu izana bere itzulpena), eta bere pixkanakako heriotza kontatzen da. Aipatu bezala, 1962an antzeztu zen Agirreren itzulpena. Horrez gain, 1984an paperean argitaratu zen *Alzateko Jaun* (1979) itzulpenarekin batera Donostiako Edili argitaletxearen eskutik. Susa literaturaren webgunean ere eskuragarri dago.

1963an, *Txalupak jaberik ez* aurkeztu zuen Agirrek Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Jatorrizko autore Alejandro Casona antzerkigilea dugu. Casona 1903an sortu zen Asturiasen, eta 1965ean hil zen Madrilen. Erbestean eman zuen ia bizitza osoa, 1937tik 1962ra arte zehazki, eta tarte horretan idatzi zituen bere antzezlan gehienak. Horien artean dugu *La barca sin pescador* jatorrizko obra fantastikoa, zeina 1945ean estreinatu baitzen Buenos Airesen Josefina Diaz eta Manuel Colladoren konpainiaren eskutik. Agirreren itzulpena, *Txalupak jaberik ez* (1963), hamarkada batzuk geroago estreinatu zen. Era berean, 1996an, EIZIEren *Itzulpen Antologia I* bilduman argitaratu zen, non 1991n ohorezko bazkide izendatutako itzultzaileen obrak publikatu baitziren.

Gorago eman dugun zerrenda kontsultatuz gero, ikusiko dugu Maria Dolores Agirrek Casonaren beste antzezlan bat itzuli zuela 1967an: *Irugarren itza*, Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatua. Casonaren familiako batzuk joan ziren *Irugarren itza* euskaraz ikustera 1967an aurkeztu zenean, eta oso pozik gelditu ziren Agirreren lanarekin (Urkizu, 2003: 41). Jatorrizkoa, *La tercera palabra*, 1953an taularatu zen Buenos Aireseko Odeon antzokian. Aipatu bezala, 1967an estreinatu zen Agirreren itzulpena, eta paperean argitaratu ez den arren, Koldo Mitxelena Kulturunean dago itzulpen mekanografiatua.

1965ekoa da Agirreren *Oriko txoria Orin*, Antzoki Zaharrean emana lehen aldiz. Jatorrizko idazlea Fernando Lázaro Carreter da, Fernando Ángel Lozano ezizenez. Lázaro Carreter 1923an jaio zen Zaragozan, eta 2004an hil zen Madrilen. Oso gizon ikasia zen: filologoa eta hizkuntzalaria zen, gaztelaniako irakasle gisa aritu zen, eta RAEren

presidentea izan zen 1992tik 1998ra bitarte. Hori gutxi balitz, antzerkigintzan ere ibili zen eta hiru antzezlan idatzi zituen. Horien artean ospetsuena *La ciudad no es para mí* komedia da, 1962an taularatu Palentzian eta hainbat urtetan egon zena ikusgai Espainiako hiri desberdinetan. Antzezlan horixe dugu Agirrereren *Oriko txoria Orin* itzulpenaren sorburu testua. Deigarria da hiru urte bakarrik pasatu zirela gaztelaniazkoa estreinatu zenetik Maria Dolores Agirrek itzulpena egin zuen arte, jatorrizkoaren ospe handiaren seinale, ziurrenik. Itzulpena, hala ere, ez da paperean argitaratu. Agirrereren obra gehienak bezalaxe, Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gelan dago gordeta.

1966an, Antzoki Zaharrean, Maria Dolores Agirrereren *Txapela bete euri* antzeztu zen. Jatorrizko autorea Michael Vincenzo Gazzo izeneko estatubatuarra dugu: 1923an sortu zen New Jersey estatuan, eta 1995ean hil zen Los Angelesen. Antzerkigile eta aktore gisa jardun zuen, oso talentuduna izanik bi ogibideetan. Horren erakusle dugu jatorrizko *A Hatful of Rain* antzezlana: 1955ean estreinatu zen Broadwayen, eta 398 aldiz eskaini zen 1956ra arte. Obra drama bat da, eta protagonistak drogarekiko duen menpekotasuna aztertzen du. Esan bezala, 1966an taularatu zen Agirrereren itzulpena; gaur egun, argitaratu gabeko dokumentua Koldo Mitxelena Kulturunean dago.

1968ko San Sebastian egunean aurkeztu zuen Agirrek *Iturri-agor* antzezlana Antzoki Zaharrean; hain zuzen ere, Gradu Amaierako Lan honetan aztertzea erabaki dugun itzulpena.

Federico García Lorca 1898an jaio zen Fuente Vaquerosen, Granadan, eta 1936an exekutatu zuten, Gerra Zibila hasi eta handik gutxira eta hainbat gauza leporatuta; besteak beste, homosexuala izatea. Oso entzutetsua den 27ko Belaunaldiaren parte izan zen, eta nahiz eta bizitza laburra izan, poesia liburu ugari, bidaia-liburu bat eta antzerki-obra andana idatzi zituen. Gaur egun bere antzezlanengatik ezagutzen dugu batez ere, besteak beste: *Bodas de sangre* (1933), *La Casa de Bernarda Alba* (1936), eta *Iturri-agor* itzulpenaren jatorrizkoa, *Yerma*, zeina 1934ko abenduaren 29an taularatu baitzen lehen aldiz Madrilgo Teatro Españolean. *Yerma* landa-eremuan garatzen den tragedia bat da, eta izen bereko protagonistak ama izateko duen desioa eta ezintasuna kontatzen du. Aipatu bezala, 1968an estreinatu zen Maria Dolores Agirrereren *Iturri-agor*, baina ez zen argitaratu. Koldo Mitxelena Kulturunean dago gordeta itzulpen mekanografiatua.

Gorago eman dugun zerrenda kontsultatuz gero, ikusiko dugu Agirrek García Lorcaren beste obra bat itzuli zuela urte berean: *Iturriko urretxindorrak* (1968), hain zuzen ere.

Jatorrizkoa identifikatzea, ordea, ezinezkoa izan da. Lehenik eta behin, Lorcaren obra guztien artean ez dago antzeko izenbururik edo antzeko gairik lantzen duen testurik. Bigarrenik, ez dago inon Maria Dolores Agirrerren itzulpen horren arrastorik: ez da paperean argitaratu, eta bere itzulpen gehienak ez bezala, ez da Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoan ageri. Azkenik, artikuluetan eta web-orrialde desberdinetan kontsultatuta ere, aipamen soilak baino ez ditugu topatu: Lurdes Auzmendiren *Bidegileak* bildumako liburuxkan aipatu besterik ez da egiten, eta, era berean, euskarazko Wikipedian eta Susa literaturan agertzen da, baina informazio gehigarririk eman gabe. Gure bilaketak alferrekoak zirenez, berriro erabaki genuen Lurdes Auzmendi eta Patri Urkizurengana jotzea eta haiei galdetzea; dena den, ezin izan ziguten esan zer jatorrizkori zegokion.

Nolanahi ere, *Iturriko urretxindorrak* itzulpenaren jatorrizkoaren bila ari ginela, 1968ko Iruneko jaietako programarekin topatu ginen. Dokumentuaren laugarren orrialdean honako hau aipatzen da: Maria Dolores Agirrerren *Etzan ate joka etorri* antzeztuko dela, eta baita *Yerma* antzezlanaren hirugarren koadroa ere, *Iturriko urretxindorrak* izeneko.

Gure ikerketa lanak kontuan hartuta, zalantzak piztu zaizkigu obra honen inguruan. Izan ere, badirudi testuz testu errepikatuz joan den oker baten aurrean gaudela, eta agian *Yermaren* pasarte solte bat bestetik ez dela *Iturriko urretxindorrak*.



A LAS 7,30: En el Teatro Principal, el Grupo de Arte de la Escuela de Declamación Vasca del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, pondrá en escena la Obra de don Joaquín Calvo Sotelo, traducida por María Dolores Aguirre, ETZAN ATE JOKA ETORRI, (La visita que no tocó el timbre) y como fin de fiesta el 3.º Cuadro del Poema trágico YERMA de García Lorca ITURRIKO URRETXINDORRAK (Los ruiseñores de la fuente).

A LA MISMA HORA: En la Plaza de España, bailables por la Orquesta Los Praver y en la de Urdanibia por la Fanfare de la Sociedad Jostalu.

A LAS 11 DE LA NOCHE: Bailables en la Plaza de España por la Fanfare de la Sociedad Jostalu.

A LAS 12,30: Toro de fuego.

A LAS 2: Correcalles por la mencionada Fanfare.

NOTAS: En los comercios del Paseo de Colón serán expuestas durante los días 22 de junio al 3 de julio, las Cuadros de los Artistas bidasotarras participantes en la VIII Feria Irunesa del Cuadro.

El día 28, en el local de OARGUI-ALAIKI, carretera de Anaca, apertura de la exposición de fotografías de Irún antiguo.

El Excmo. Ayuntamiento no se hace responsable de los accidentes que pudieran ocurrir durante el transcurso de las fiestas.

Asimismo, se reserva la facultad de introducir cualquier

*Irudia 1: Iruneko jaietako programaren azken orrialdea.*

1968an Agirrereren beste itzulpen bat taularatu zen Donostiako Antigu antzokian: *Etzan ate joka etorri*, Calvo Sotelo antzerkigilearena. Joaquín Calvo Sotelo Coruñan jaio zen 1905ean, eta Madrilen hil zen 1993an. Oso antzerkigile emankorra izan zen, eta sari ugari irabazi zituen bere aparteko antzezlanei esker. Hain zuzen ere, jatorrizko obrak, *La visita que no tocó el timbre*, bi aldiz jaso zuen Premio Nacional de Teatro Benavente saria. Komedia 1949an estreinatu zen Madrilgo Teatro Laran, *La visita que no llamó al timbre* izenburupean. Antzezlanana bi hamarkada geroago iritsi zen Euskal Herrira Maria Dolores Agirrereren itzulpenaren eskutik. Bere lan gehienak bezalaxe, ez da argitaratu. Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoan begiratuta, gainera, ez dugu itzulpenaren arrastorik aurkitu; bakarrik jatorrizkoa topatu dugu.

1970ekoa da Agirrereren hurrengo itzulpena, *Beste ertza*, López Rubio autoreak idatzitakoa. José López Rubio 1903an sortu zen Motrilen, Granadan, eta 1996an hil zen Madrilen. Antzerkigilea izateaz gain, gidoilaria ere izan zen. Horrela, gidoiak idatzi zituen telebista eta zinemarako, eta, horrez gain, Hollywoodeko hainbat filmen itzulpenak egin zituen Metro Goldwyn Mayer eta Fox ekoizleentzat. 1950eko hamarkadan idatzi zituen bere antzezlan gehienak, horien artean jatorrizko *La otra orilla* tragikomedia, 1954an estreinatua Madrilgo Teatro de la Comedian. Esan dugun moduan, Agirrereren itzulpena 1970ean taularatu zen, kasu honetan Tolosako Iparragirre antzokian. Argitaratu gabeko itzulpena dugu hau ere, baina Koldo Mitxelena Kulturunean dago gordeta eskuizkribua.

1971ko abenduan, Antzoki Zaharrea, euskaldun batek gazteleraz idatzitako antzezlan bat itzuli eta aurkeztu zuen Maria Dolores Agirrek: *Iparragirre*, Guerrero Urreistirena. Juan Guerrero Urreisti Donostian jaio zen 1901ean, eta Guadalajaran hil zen 1980an. Konpositorea izan zen, eta hain zuzen ere musikarekiko zuen zaletasun horrek bultzatu zuen antzezlan musikatuak idaztera, hala nola, *Oro verde*, *Allá en la braña* edo jatorrizko *Iparraguirre*. Agirrereren itzulpena bezalaxe, 1971n estreinatu zen Donostiako Antzoki Zaharrea, ziuurrenik hilabete batzuk lehenago. Agirrek itzulpena urte berean egin zuela kontuan hartuta, pentsatzekoa da biek elkar ezagutzen zutela eta Guerrero Urreistik berak pasatu ziola obraren gidoia. Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoan argitaratu gabeko itzulpena bilatzen saiatu gara, baina ez dugu ez itzulpena, ez jatorrizkoaren arrastorik aurkitu.

1973ko urtarrilaren 20an, Antzoki Zaharrean, estreinatu zen Maria Dolores Agirrek jubilatu aurretik egindako azken itzulpena: Buero Vallejoren *Illumpe goritan*. Antonio Buero Vallejo 1916an jaio zen Guadalajaran, eta 2000. urtean hil zen Madrilen. Hasieran margolaritzan ibili arren, Gerra Zibilaren ostetik espetxean sartu zuten, eta 1946an atera zenean antzerkiarekiko interesa piztu zitzaion. Urte horretan bertan idatzi zuen jatorrizko *En la ardiente oscuridad*, zeina lau urte geroago, 1950ean, taularatu baitzen Madrilgo Maria Guerrero antzokian. Antzezlanak drama sinboliko bat da, eta gizon itsu baten borroka kontatzen du. Agirreraren itzulpena 1973ko San Sebastian egunean antzeztu zen, baina ez da inoiz argitaratu. Bestalde, ez dugu aurkitu Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoan, jatorrizkoa eskuragarri badago ere.

Maria Dolores Agirrek 1973an hartu zuen erretiroa, 1981era arte antzerki lanak erabat utzi ez arren (Auzmendi, 2002: 22). Horrela, 1979an taularatu zen Antzoki Zaharrean Agirrek egindako azken itzulpena: Pío Barojaren *Alzateko Jaun*. Pío Baroja y Nessi 1872an sortu zen Donostian, eta 1956an hil zen Madrilen. 98ko Belaunaldiaren parte izan zen, eta oso idazle emankorra. Batez ere eleberriak argitaratu bazituen ere, sei antzezlan idatzi zituen; horien artean, jatorrizko *La leyenda de Jaun de Alzate*, 1922an publikatu zena Rafael Caro Raggio editorearen eskutik, Pío Barojaren koinatua. Gaur egun eleberri hizketatu gisa izendatzen da. Istorioa Erdi Aroko Euskal Herrian girotuta dago, eta garaiko errealitatea eta euskal mitologia nahasten ditu. Aipatu bezala, 1979koa da Maria Dolores Agirreraren itzulpena, baina ez da berak bakarrik egindakoa, Felipe Yurramendiren laguntza jaso baitzuen. Hain zuzen ere, Yurramendi izan zen Agirre jubilatu eta gero Iztunde Ikastolan euskarazko eskolak ematen jarraitu zuena. Itzulpena antzeztu ez ezik, 1984an paperean argitaratu zen Donostiako Edili argitaletxearen eskutik, *Amal* (1962) itzulpenarekin batera. Susa literaturaren web-orrialdean ere irakur daiteke.

Horiek guztiak dira, beraz, Maria Dolores Agirrek antzerkirako egin zituen itzulpenak. Ikusi ahal izan dugunez, autore garaikideak itzuli zituen; horietako gehienak, gainera, Espainiakoak ziren, eta kontuan hartuta gaztelaniaz idatzi zituztela beren antzezlanak, argi dago Agirrek zuzenean itzuli zituela euskarara. Atzerriko hizkuntzetan idatzitako jatorrizko obren kasuan (hots, Ghéonon *Lourdesko lorea* frantsesez, Tagoreren *Amal* bengaleraz eta Gazzoren *Txapela bete euri* ingelesez), pentsatzekoa da Agirrek gaztelera erabili zuela zubi-hizkuntza gisa. Izan ere, gaur egun dakigunez, euskara eta gaztelania bakarrik hitz egiten zituen. Itzulitako antzezlanen generoari begira, batez ere dramak (*Amal*, *Txapela bete euri*, *Irugarren itza*, *Iturri-agor*, *Beste ertza*, *Illumpe goritan*) eta

komediak (*Oriko txoria Orin, Etzan ate joka etorri*) euskaratu zituen. Antzezlanen gaiak, bestalde, nahiko progresistak ziren: drogak, antzutasuna, emakumearen ahalduntzea, heriotza... Bukatzeko, ikusi dugu itzulpenak batez ere zegokion egunean antzezteko egin zituela Agirrek, eta ez inon argitaratzeko helburuarekin. Hortik gaur egun bakarrik hiru itzulpen egotea publikatuta (*Amal eta Alzateko Jaun* 1984ko liburu bakarrean eta *Txalupak jaberik ez* EIZIERen 1996ko *Itzulpen Antologia I* bilduman), eta argitalpen horiek antzezlanak estreinatu eta handik urte dezentera egitea.

Hala eta guztiz ere, ez da hor amaitzen Maria Dolores Agirrek itzultzaile gisa egindako lana. Izan ere, antzerkiaz gain, bestelako itzulpenak ere egin zituen. Batetik, helduentzako ipuin bat euskaratu zuen: *Ilargian ere euskaraz*, zeina 1967an argitaratu baitzen Donostiako Izarra argitaletxearen eskutik. Itzulpena, baina, ez zuen bakarrik egin, bere ikasle eta adiskide izandako Maritxu Urretak (1915-2018) lagundu baitzion. Urreta, itzultzailea ez ezik, idazlea, argazkilaria eta marrazkilaria izan zen, eta, hain zuzen ere, hark egindakoak dira *Ilargian ere euskaraz* liburuan agertzen diren marrazkiak. Jatorrizko testua, Jose Luis Muñoyerro (1925-2015) idazle bizkaitarraren *En la luna también se habla vascuence* da, eta itxura guztien arabera edizio elebidun batean argitaratu ziren jatorrizkoa eta euskarazkoa 1967an.

Bestalde, Agirrek sarritan egin zituen itzulpen komertzialak Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalerako.

Hori gutxi balitz, sormen lanik ere idatzi zuen: hasteko, *Aukeraren maukera, azkenian... okerra* bakarrizketa. Obra 1949an aurkeztu zuen Azpeitiko Nekazari Alkartasunak San Tomas egunean antolatzen zuen lehiaketara, eta lehen saria lortu zuen Agirrek. Hala, 1950eko *Egan* aldizkariaren 2. zenbakian argitaratu zen, 27-31. orrialdeetan. Hori ez zen izan *Eganen* argitaratutako bere lan bakarra; hain zuzen ere, 1956ko 5/6. zenbakian, 99-102. orrialdeetan, *Bear-bearra* izeneko artikulua idatzi zuen, non euskararekiko maitasuna adierazten baitzuen. Azkenik, *Au dek maltzurkeria!* izeneko antzezlanak idatzi zuen. 1958an antzeztu zen Donostiako Antzoki Zaharrean, baina ez zen paperean argitaratu; gaur egun, Koldo Mitxelena Kulturunean esku-programa eta itzulpen mekanografiatua daude gordeta.

Horrenbestez, atal honetan zehar aztertutakoa aintzat hartuta, itzultzaile gisa Maria Dolores Agirrek oro har antzezlanak euskaratu zituen. Alde batetik, Euskal Izkerak ta Iztunde Ikastolan zuen zereginetako bat zelako antzezlanak prestatzea egun

zehatzetarako. Bestalde, bereziki genero hori itzuli izana garaiko testuinguru sozio-historikoaren bidez azal daiteke.

## **2. GARAIKO TESTUINGURU SOZIO-HISTORIKOA**

Egile edo itzultzaile bat ikertzen ari garenean, ohikoena testuinguru sozio-historikoa hasieran agertzea da. Lan honetan, ordea, hurrenkera aldatzea erabaki dugu eta lehenik Agirre itzultzaile gisa aztertzea. Izan ere, iruditu zaigu hurrenkera horri jarraituta argiago ulertuko dugula zergatik erabaki zuen Maria Dolores Agirrek batez ere antzerkia itzultzea, eta ez beste generoren bat.

Testuinguru sozio-historikoari heltzeko, Agirrereren jaiotza-dataren eta jubilazio urtearen arteko tartea izango dugu ardatz; hain zuzen ere, urte horietan zehar bizitako giroak eragina izango duelako bere itzulpenetan.

Gogora ekartzeko, aipatu dugu Maria Dolores Agirre Aizpuru 1903. urtean sortu zela, eta erretiroa 1973an hartu zuela. Hortaz, XX. mende hasieratik diktaduraren amaiera aldera arte Euskal Herrian eta, bereziki, itzulpengintzan zer gertatzen ari zen aztertuko dugu.

### **2.1. Gerraurrea (1903-1936)**

1876an, foruak erabat galdu ziren Hego Euskal Herrian, eta erreakzioz euskara eta euskal kulturaren aldeko lan-taldeak agertu ziren lau probintzietan (Mendiguren, 1995: 133). Piztu zen mugimendu sozial horri Euskal Pizkundera deitzen zaio, eta Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen Hiztegian azaltzen den moduan, helburua euskararen balioestea zen, eta, era berean, hizkuntza egoera modernoetara moldatzea eta egokitzea. Horrenbestez, Pizkunderarekin batera euskararekiko jarrera positiboa gailendu zen, eta horri lotuta asko egin zuten gora liburuen argitalpenek, euskararen aldeko ekimenek eta aldizkarien kopuruak. Itzulpengintzari dagokionez, XX. mendean hasi ziren agertzen helburu literarioa zuten lehenengo itzulpenak (Jaka, 2011: 181); ondorioz, generoen ugalketa eman zen eta narratiba, saiakera eta batez ere antzerkia euskaratzen hasi ziren.

Itzultzeko moduari begira, hiru joera nagusi nabarmentzen ziren: populista edo herrikoia, Resurreccion Maria Azkue eta bere jarraitzaileena eta aranatar puristena (Mendiguren, 1995). Hiru joera horien artean, itzultzaile herrikoiena da gehien interesatzen zaiguna, multzo horretan sartuko baikenuke Toribio Alzaga, Euskal Izkerata Iztunde Ikastolako zuzendaria. Antzezlan ugari itzuli zituen, garaiko herri-euskaratik hurbil zegoen euskara bat erabiliz horretarako. Bestalde, Maria Dolores Agirrereren



adiskide eta irakaslea izan zenez, pentsa daiteke bere itzultzeko moduan eragina izan zuela.

Beraz, Agirrereren haurtzaro nahiz gaztaroan giro euskaltzalea zen nagusi Euskal Herrian. Euskararekiko zaletasuna hortik jasotzeaz gain, aurrerago aipatu dugu bere familia ere oso euskaltzalea zela.

## **2.2. Frankismoko lehen urteak (1940-1960)**

Gerra zibilak ekarritako haustura eta gero, 1940ko hamarkadaren amaieran eta batez ere 1950eko hamarkadan zehar hasi ziren berriz agertzen hainbat euskal itzulpen (Jaka, 2011: 182). Era berean, aldizkari literario ugari jarri ziren martxan. Aldizkari horiek garrantzi handia izan zuten garaiko itzultzaileentzat; izan ere, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan zehar, mota askotako testuen itzulpenak argitaratu ziren bereziki *Egan*, *Euzko Gogo* eta *Olerti* aldizkarietan (Jaka, 2011: 185).

Itzultzeko aukeratzen ziren testuei eta itzulpen horiek egiteko zeuden motibazioei begira, bi joera nagusi nabarmentzen ziren.

Alde batetik, itzulpena luma zorrozteko bide gisa ikusten zuten itzultzaileak zeuden, hala nola, Santi Onaindia, Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia. Itzulpengintza euskaraz idazten trebatzeko baliabide egokia zela pentsatzen zuten, eta gainera euskararen apologia egiteko aukera ematen zien; hau da, itzulpenen bitartez, euskararen balioa eta aberastasuna zenbaterainokoa zen erakutsi zezaketen. Beraz, multzo honetako egileek bi motibazio nagusi zituzten itzultzerakoan: luma zorroztea eta euskaltzaletasuna. Itzultzeko aukeratzen zituzten testuei dagokienez, oro har bi motatako egileak euskaratu zituzten: nahiz eta idazle klasikoak itzuli (Platon, Virgilio, Homero...), egile garaikide eta era berean kanonikoak ere euskaratu zituzten, besteak beste, Pío Baroja, R. Tagore, García Lorca eta Pablo Neruda (Jaka, 2011).

Bestalde, garai bertsuan, itzulpengintza gozamina lortzeko tresna gisa ikusten zuten itzultzaileak zeuden, hala nola, Jon Mirande eta Gabriel Aresti. Aurreko multzoko itzultzaileek ez bezala, Mirandek eta Arestik helburu estetikoa bilatzen zuten itzulgaiak aukeratzerakoan; hots, plazer literarioa sorrarazten zieten testuak euskaratzen zituzten. Era berean, askotan helburu politikoa identifika daiteke beren itzulpenetan. Beraz, itzultzeko zituzten motibazio nagusiak gozamina eta politika zirela esan daiteke. Euskaratzeko aukeratzen zituzten testuei begira, egile modernoagoak eta ezezagunagoak

itzuli zituzten batez ere (Nazim Hikmet poeta turkiarra eta Per Denez idazle bretoa, esaterako), euskal literaturan zegoen tradizionalismoa hautsi nahian (Jaka, 2011).

Bi joeretako itzulgaiei eta helburuei erreparatuz gero, Maria Dolores Agirre lehenengo multzoko egileengandik gertuago dagoela esan daiteke. Batetik, itzultzaile gisa aztertu dugunean ikusi dugulako garaikide kanonikoak euskaratu zituela batez ere (García Lorca, Buero Vallejo, Casona); bestetik, ez dugu ahaztu behar Agirrerren euskaltzaletasuna. Itzulpenak hizkuntzaren alde egiteko egiten zituen, lehen multzoko egileek bezalaxe, eta ez gozamen estetikoak lortzeko, Aresti eta Miranderren antzera. Horrenbestez, lehen multzoko egileekin bat dator jatorrizko idazleen kanonikotasunari eta euskaltzaletasunari begira.

### **2.3. Frankismoko azkeneko urteak (1960-1973)**

Gorago aipatu dugun moduan, Euskal Izkeria ta Iztunde Ikastolaren bigarren aroa 1953an hasi zen, Agirrerren zuzendaritzapean. 1953tik 1961era bitarte, oro har euskal antzerki-idazleen obrak antzeztu zituzten San Tomas eguneko emanaldian. Dena den, bertakoek zenbait gai lantzen ez zituztenez, kanpoko idazleen lanak hautatu eta euskaratzea erabaki zuen Maria Dolores Agirrek (Auzmendi, 2002: 17). Horrenbestez, 1962an *Amal* estreinatu zenetik 1973ra bitarte, Agirrek euskaratutako obrak antzeztu zituzten batez ere.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar oraindik frankismoa indarrean zegoela urte haietan, eta beraz itzultzaile gisa hasi berria zen Maria Dolores Agirrek zentsura pasatu behar zuen obra bakoitza antzeztu aurretik. Gobernu Zibilean aurkeztu behar izaten zuen itzulpena, eta badirudi ez zela kontu atsegina; izan ere, Agirrek beldurrez dardarka eramaten zituen Gobernura zentsura pasatzeko paperak (Auzmendi, 2002: 22).

Horrek, dena den, ez zuen gelditu, eta urte latz horietan zehar herri-euskararen zuzia pizturik mantentzea lortu zuen. Aipatzekoa da garai hartako Euskal Herrian antzerkiak izugarrizko garrantzia zuela, euskararen transmisioa egiteko ezinbesteko tresna bihurtu baitzen. Horrenbestez, Agirrek ez zuen zoriz aukeratu antzezlanak itzultzea. Auzmendik (2002: 15) Maria Dolores Agirrerren hitzak ekartzen dizkigu gogora: «Bere esanetan antzerkia hainbeste maite bazuen, besteak beste Euskal Herriko hizkuntza hitz egiteko aukera ematen ziolako zen (...) Gure lexiko aberatsa, gure esamoldeak, gure herri-jakituria erabiltzeko».

Ikusi dugunez, Maria Dolores Agirrek bizi izan zuen egoerak eragin zuzena izan zuen bere itzulpenetan. Euskal Herriko garairik zailenetako bat bizitzea egokitu zitzaion, eta bide horretatik itzulpengintzari egindako ekarpenak goraipatzeko modukoak dira. Agirrek bizitza osoa eman zuen euskararen alde borrokatzen, harik eta 1997ko uztailaren 26an hil zen arte.

### 3. *ITURRI-AGOR* ITZULPENAREN AZTERKETA

#### 3.1. Aztertutako dokumentuaren aurkezpena

Gorago aipatu dugun bezala, Gradu Amaierako Lan honen helburua Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa sakonago aztertzea da. Horretarako, bere itzulpen guztien ikuspegi orokor bat emateaz gain, *Iturri-agor* itzulpena (1968) xeheago ikertzea erabaki genuen. Oro har, bi arrazoirengatik aukeratu genuen Maria Dolores Agirrerren obra hau: alde batetik, emakume bat, *Yerma*, dugulako kontakizunaren protagonista nagusia, eta jorratzen diren gaiak (hala nola, antzutasuna, amodio propioa eta emakumearen askatasuna) oso interesgarriak iruditzen zaizkigu. Bestalde, jatorrizkoaren idazlea, Federico García Lorca, ongi ezagutzen dugulako eta bere estiloa paregabea dela pentsatzen dugulako. Bagenekigun, ordea, *Iturri-agor* ikertzeak gorabeherak ekarriko zituela; izan ere, argitaratu gabeko dokumentua da.

Esan dugu Agirrerren hiru itzulpen bakarrik publikatu direla gaur egunera arte: *Amal* (1962koa, 1984an paperean argitaratua eta gaur egun Susa literaturaren web-orrian eskuragarri dagoena), *Txalupak jaberik ez* (1963koa, EIZI Eren *Itzulpen Antologia I* bildumaren baitan eskuragarri) eta *Altzateko Jaun* (1979koa, 1984an publikatua *Amalekin* batera eta gaur egun Susa literaturaren web-orrian eskuragarri dagoena). Nolanahi ere, Susa literaturaren webgunean jakin genuen Maria Dolores Agirrek egindako gainerako itzulpen mekanografiatu gehienak Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gelan daudela gordeta. Informazio hori ezagututa, *Iturri-agor* lortzeko aukera ikusi genuen.

Lehenik eta behin, beraz, Koldo Mitxelenako Fondo Gordeen Gelarekin jarri ginen harremanetan, gure asmoak azalduz. Erantzuna azkar iritsi zen: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren fondotik etorritako ale bat zeukaten, *Yerma – García Lorca* izenburuean gordeta eta itzultzailearen daturik gabe. Maria Dolores Agirrerren itzulpena zelakoan, kontsultarako eskaera egin, eta Fondo Gordeen Gelaren bidez eskuratu genuen dokumentuaren kopia digitala.

Bigarrenik, jasotako testuaren egiletza frogatu behar genuen; izan ere, euskaraz idatzita egon arren, ez zen inon ageri Maria Dolores Agirrerren izena, ezta *Iturri-agor* izenburua ere (hori zen 1968ko antzezlanaren esku-programan agertzen zen izenburua). Dokumentuaren egiletza egiaztatzeko Lurdes Auzmendi itzultzaile eta interpretearekin harremanetan jartzea erabaki genuen. Alde batetik, Maria Dolores Agirre pertsonalki

ezagutzen zuelako; hain zuzen ere, EIZIEren *Itzulpen Antologia I* bilduman haren itzulpen bat argitaratzeko eskaeraren bidez ezagutu zuten elkar. Bestalde, 2002an Eusko Jaurilaritzaren *Bidegileak* bildumarako Agirrerren biografia osoa idatzi zuelako. Beraz, ez zegoen zalantzarik Maria Dolores Agirrerren bizitzan aditua zela. Hala, Lurdes Auzmendiri bidali genion jasotako kopia digitala, esku artean genuen dokumentua Maria Dolores Agirrek itzultakoa zela baieztatu zezan. Erantzuna berehala iritsi zen: Auzmendik ez zuen zalantzarik itzulpena Agirrerrena zela. Izan ere, *Itzulpen Antologia I* bilduman argitaratu zuten *Txalupak jaberik ez* (1963) itzulpenarekin antzekotasun asko identifikatu zituen: bai estiloa, bai euskalkia berdín erabiltzen ditu Agirrek bi dokumentuetan.

Egiletza berretsita, beraz, testua Gradu Amaierako Lan honetarako aztertzeari ekin genion.

Hasteko, xehe-xehe erreparatu genien kopia digitalaren ezaugarri fisikoei. Dokumentua mekanografiatuta dago, eta 35 orrialde ditu denetara; gainera, orrialde bakoitza zenbatuta dago, dagokion zenbakia goiko eskuineko aldean ageri delarik (1etik hasita 35eraino). Kopiaren lehen orrian ez da izenbururik ageri, ezta egilearen aipamenik ere; aldiz, eskuz idatzitako hitz gutxi batzuk daude: *Yerma – García Lorca*. Litekeena da Fondo Gordeen Gelan idatzitakoak izatea. Bestalde, lehen orrian ere, goiko eskuineko aldean dokumentuaren kokapena adierazten duten zifrak agertzen dira (C-384 F-5). Bukatzeko, kopia inprimatua ez izan arren, badirudi dokumentu osoa ongi mantentzen dela, ez baita orrialde bakar bat ere falta eta arazorik gabe irakur daiteke idatzitako guztia. Fondo Gordeen Gelak bidalitako mezuan aipatzen da 30 cm luze direla orrialdeak.

Atal honi amaiera emateko, ezinbestekoa iruditu zaigu *Iturri-agor* antzezlanaren inguruko datuak ematea, azken finean aztergai dugun dokumentua antzezleek ikasteko idatzi baitzen. Patri Urkizuk (2003: 48) *Eganen* idatzitako artikuluan topatu dugu *Iturri-agor* obraren esku-programa.

1968ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean hain zuzen ere, estreinatu zen *Iturri-agor* antzezlanak Donostiako Antzoki Zaharrean. Bi emanaldi egon ziren: bata arratsaldeko bostetan, bestea arratsaldeko zazpi eta erdietan, eta bakarrik hamasei urtetik gorakoentzat izan ziren. Pertsonaien banaketari dagokionez, Euskal Izkerak ta Iztunde Ikastolako antzerki taldekoek antzeztu zituzten. Paper protagonistak aipatzearen: Arruabarrenak Yerma, Alemanek Maria, Etxebestek Joan, Albak Bitor eta Agotek Dolores antzeztu zituzten.

<b>TEATRO PRINCIPAL</b> 20 de enero de 1968 A las 5 y 7,30 de la tarde <b>FIESTAS DE SAN SEBASTIAN</b> <b>TEATRO VASCO</b> Organizado y patrocinado por el C. A. T. a cargo del Cuadro de Arte de la ESCUELA DE LA LENGUA Y DECLAMACION VASCA del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, que representará el poema trágico en tres actos y seis cuadros, original de FEDERICO GARCIA LORCA, traducido al euskera por MARIA DOLORES AGUIRRE.	<b>ANTZOKI ZAARREAN</b> 1968'go. Ilbeltza 'k 20 Arratsaldeko 5 eta 7,30'tan <b>DONE SEBASTIAN JAIETAN</b> <b>EUSKAL ANTZERKIA</b> Donosti'ko C. A. T.'k erata, Ayuntamiento'ko EUSKAL IZTUNDE TALDEA'k jarriko dizute, FEDERICO GARCIA LORCA olerkariak egin eta AGIRRE'tar MARIA DOLORES'ek euskeratu-tako iru egintza ta sei laukidun eresi-olerki laz-garria.																						
<b>Y E R M A</b>	<b>ITURRI-AGOR</b>																						
Autorizada a mayores de 16 años	Amasei urtetik gorakoentzat																						
<table border="0"> <tr> <th style="text-align: left;">REPARTO</th> <th style="text-align: left;">BANAKETA</th> </tr> <tr> <td>Yerma ..... Arruabarrena</td> <td>2.º Neskatxa ..... Etzeberria</td> </tr> <tr> <td>María ..... Aleman</td> <td>Ema ..... Alba</td> </tr> <tr> <td>Atsoa ..... Arrieta</td> <td>Konatak ..... Arizti ta Randez</td> </tr> <tr> <td>Dolores ..... Agote</td> <td>Emakumea ..... Etzaniz</td> </tr> <tr> <td>1.º Lixiba-jotzailea .. Hubegun Aldalur</td> <td>Joan ..... Etzebeste</td> </tr> <tr> <td>2.º " " .. San Sebastian</td> <td>Bitor ..... Alba A.</td> </tr> <tr> <td>3.º " " .. Laborda</td> <td>Arra ..... Ezeiza</td> </tr> <tr> <td>4.º " " .. Uranga</td> <td>1.º Gizonetzkoa ..... Alkorta</td> </tr> <tr> <td>5.º " " .. Garayalde</td> <td>2.º " .. Rezola</td> </tr> <tr> <td>1.º Neskatxa ..... Uranga</td> <td>3.º " .. Altuna</td> </tr> </table>	REPARTO	BANAKETA	Yerma ..... Arruabarrena	2.º Neskatxa ..... Etzeberria	María ..... Aleman	Ema ..... Alba	Atsoa ..... Arrieta	Konatak ..... Arizti ta Randez	Dolores ..... Agote	Emakumea ..... Etzaniz	1.º Lixiba-jotzailea .. Hubegun Aldalur	Joan ..... Etzebeste	2.º " " .. San Sebastian	Bitor ..... Alba A.	3.º " " .. Laborda	Arra ..... Ezeiza	4.º " " .. Uranga	1.º Gizonetzkoa ..... Alkorta	5.º " " .. Garayalde	2.º " .. Rezola	1.º Neskatxa ..... Uranga	3.º " .. Altuna	124888 - Peña y Gali, 12 San Sebastián - Enero 1968
REPARTO	BANAKETA																						
Yerma ..... Arruabarrena	2.º Neskatxa ..... Etzeberria																						
María ..... Aleman	Ema ..... Alba																						
Atsoa ..... Arrieta	Konatak ..... Arizti ta Randez																						
Dolores ..... Agote	Emakumea ..... Etzaniz																						
1.º Lixiba-jotzailea .. Hubegun Aldalur	Joan ..... Etzebeste																						
2.º " " .. San Sebastian	Bitor ..... Alba A.																						
3.º " " .. Laborda	Arra ..... Ezeiza																						
4.º " " .. Uranga	1.º Gizonetzkoa ..... Alkorta																						
5.º " " .. Garayalde	2.º " .. Rezola																						
1.º Neskatxa ..... Uranga	3.º " .. Altuna																						

*Irudia 2: Iturri-agor obraren esku-programa.*

### 3.2. Metodologia

Maria Dolores Agirrereren *Iturri-agor* xehe aztertzeke, bi analisi-eredu edo proposamenetan oinarritu gara.

Alde batetik, Manipulazio Eskolaren barruko Jose Lambertek eta Hendrik Van Gorpek sorburu- eta xede-testua alderatzeko proposatutako eredua baliatu dugu. Bi teorialari horiek garrantzi handia ematen diote xede-testua xede kulturako testuinguruan kokatzeari, eta horregatik testuaren analisi linguistiko hutsetik harago doan proposamen bat egiten dute. Zehazki, sorburu- eta xede-testua hiru mailatan alderatzea proposatzen dute: lehenik eta behin, alde aurreko datuak aztertu behar dira; bigarrenik, itzulpenaren maila makrotestuala, eta, hirugarrenik, maila mikrotestuala. Lan honetan aztergai ditugun testuak, beraz, hiru maila horietan alderatu ditugu.

Bestalde, Lambertek eta Van Gorpen ereduak zehaztasuna falta duenez mikro mailan aztertu beharrekoari begira, Hurtado Albirrek proposatutako itzulpen-tekniken zerrenda erabili dugu testuaren maila mikrotestuala sakon aztertu ahal izateko.

Azkenik, aipatu beharra dago sorburu-testu gisa Cervantes Institutuak bere Biblioteca Digital Miguel de Cervantes liburutegi birtualean eskegita daukan edizioa erabili dugula. Kontsultatu nahi izanez gero, bibliografian txertatu dugu testurako esteka.

### 3.3. Aldez aurreko datuak

Aldez aurreko datuei dagokienez, bi alderdi nagusiri jarri diegu arreta: izenburua eta egiletza.

Izenburuari begira, aipatu dugu jasotako kopia digitalak ez duela izenbururik. Hala eta guztiz ere, gaur egun obra *Iturri-agor* bezala ezagutzen dugu, seguru asko horrela publizitatu zelako 1968an estreinatu zenean. Horrenbestez, izenburu horri erreparatu diogu.

Deigarria da Maria Dolores Agirrek jatorrizko testuko izenburua, *Yerma*, erabat moldatzea eta euskaraz ematea erabaki zuela, esku-programan ikus daitekeen bezala. Agirrek euskararekiko zuen maitasuna behin eta berriro aipatu dugu lan honetan zehar; baliteke izenburu aldaketa hori ere euskaltzaletasunaren ondorio izatea: Agirrek argi utzi nahi izan zien ikusleei antzezlanaren euskaraz egingo zela.

Nolanahi ere, azpimarratzeko moduko beste kontu bat dago izenburuari dagokionez. Jatorrizkoan, pertsonaia nagusiaren izenak eta obraren izenburuak bat egiten dute (*Yerma*). Agirreraren itzulpenean, esan dugun bezala, izenburua aldatzen da (*Iturri-agor*), baina pertsonaiaren izena mantendu egiten da: esku-programan *Yerma* izena ageri da; era berean, ikertutako itzulpenean *Yerma* erabiltzen da bai pertsonaia-izen gisa, bai elkarriketen barruan (24. orrialdean hiru aldiz agertzen da). Baliteke Maria Dolores Agirrek izen propioa mantentzea erabaki izana ikusleek nahiz itzultitako gidoia irakurriko zuten antzezleek arazorik ez izateko pertsonaia identifikatzean.

Egiletzaren auzia ere aipatzeko modukoa da. Dokumentua aurkeztu dugunean esan dugu ez dela inon ageri Maria Dolores Agirre itzultzailea denik. Hala ere, honi begira kontuan hartzeko moduko bi kontu daude: batetik, dokumentu argitaragabea dela; bestetik, itzulpenaren funtzioa. Izan ere, antzerki-taldekoek ikasteko prestatutako testua da, ez argitara emateko, eta horregatik itzultzailearen izena agertzeak bigarren mailako garrantzia du. Hala ere, 1968ko esku-programan aipatzen da antzeztuko zen obra Maria Dolores Agirrek euskaratutakoa zela.

### 3.4. Maila makrotestuala

Maila makrotestualean, hiru alderdiri erreparatu diegu: itzulpena osoa edo partziala den, testuaren banaketa jatorrizkoaren bera den eta pertsonaia nagusien izenak.

*Iturri-agor* 1968ko San Sebastian egunean antzezteko euskaratu zuen Agirrek, eta itzulpen hori osoa da; izan ere, jatorrizko *Yerma* osorik antzezteko egin zuen. Bide horretatik, testuaren banaketa ere sorburu-testuaren berbera da: *Yerma* hiru ekitalditan banatuta dago, eta ekitaldietako bakoitzak bi agerraldi edo koadro ditu; era berean, *Iturri-agor* hiru ekitalditan (Agirrek *egintza* deitzen die), zatituta dago, eta bi agerraldi (Agirrereren hitzetan, *lauki*), ditu ekitaldietako bakoitzak. Lehen ekitaldia 1. orrialdean hasi eta 12. orrialdean bukatzen da (lehen agerraldiak 1-6. orrialdeak hartzen ditu, bigarrenak 7-12. orrialdeak); bigarren ekitaldia 13. orrialdean hasi eta 24. orrialdean amaitzen da (lehen agerraldiak 13-17. orrialdeak hartzen ditu, bigarrenak 18-24. orrialdeak); azkenik, hirugarren ekitaldia 25. orrialdean hasi eta 35. orrialdean bukatzen da (lehen agerraldiak 25-28. orrialdeak hartzen ditu, bigarrenak 29-35. orrialdeak). Ekitaldi eta agerraldi bakoitza, gainera, osorik itzulita dago; hots, Maria Dolores Agirrek ez zuen pasarterik kendu edo gehitu.

Pertsonaia nagusien izenen auzia ere interesgarria iruditu zaigu, bereziki izen propioak dituzten pertsonaien izenei dagokienez. Hiru alderdiri erreparatu diegu: pertsonaia-izenak (hots, ezkerreko aldean nola izendatzen diren pertsonaiak), elkarrizketen barruan nola izendatzen diren eta akotazioak (hau da, antzezlan baten gidoian parentesi artean gehitzen den informazioa).

Hasteko, istorioko protagonistaren izena bera da aipatzekoa. Aldez aurreko datuak eman ditugunean esan dugu Agirrek antzezlanaren izenburua egokitu arren, pertsonaia nagusiaren izena, *Yerma*, bere horretan mantentzea erabaki zuela. Horretarako arrazoi posible bat ere plazaratu dugu; alegia, Agirrek izen propioa mantentzea erabaki zuela ikusleek nahiz itzulitako gidoia irakurriko zuten antzezleek erraz identifikatzeko pertsonaia. Bide horretatik, *Yerma* izendapena erabiltzen da bai pertsonaia-izen gisa (*Yermak* obran hitza hartzen duen bakoitzean ezkerreko aldean *Yerma* agertzen da, salbuespenik gabe), bai elkarrizketen barruan (24. orrialdean, hiru aldiz agertzen da *Yerma* izena). Akotazioetan ere izena mantendu egiten da.

Izen propioak dituzten beste lau pertsonaia nagusi daude obran. Esku-programan ageri diren izenak errespetatuz: Joan, Yermaren senarra; Bitor eta Maria, protagonistaren lagunak, eta Dolores, herriko sorgina. Benetan bitxia iruditu zaigu itzulpenean zehar pertsonaia horien izenekin gertatzen dena.



Joan, esan bezala, Yermaren senarra dugu. Pertsonaia-izenari erreparatuta, obran zehar aldatzen dela ikusi dugu: lehen eta bigarren ekitaldian (1-24. or.), *Jon* agertzen da pertsonaiak hitz egiten duen bakoitzean (2. orrialdean *Yon* bat identifikatu dugu); aldiz, hirugarren ekitaldian, *Juan* (27-28. or.) eta *Joan* (34-35. or.) izendapenak agertzen dira. Izena elkarrizketen barruan aipatzen denean, fenomeno bera gertatzen dela ikusi dugu: *Jon* izendapena agertzen da (1. orrialdean hiru aldiz, 5. orrialdean eta 6. orrialdean), *Joan* (22. orrialdean birritan) eta *Juan* (27 eta 28. orrialdeetan). Akotazioei begira, *Jon* (12., 18. eta 23. orrialdeetan) eta *Juan* (27. or.) ageri dira, pertsonaia-izenaren aldaketekin bat etorritik.

Bitor pertsonaiaren kasua antzekoa da. Nolanahi ere, pertsonaia-izenak aldaketa gutxiago ditu: 5. eta 6. orrialdeetan *Aitor* izena agertzen bada ere (*Bitor* bat identifikatu dugu 5. orrialdean), gerora *Bitor* mantentzen da itzulpen osoan zehar. Elkarrizketen barruan ere *Bitor* izena da nagusi (8., 15. eta 22. orrialdeak; salbuespen bakarra 5. orrialdean dago, *Bittor* ageri baita). Akotazioetan aurkitu dugu beste *Bittor* bat (5. orrialdean, hain zuzen ere); gainerakoan, *Bitor* izena mantentzen da (6., 11., 12., 22. eta 23. orrialdeetan).

Mariaren kasuan, pertsonaia-izena aldatuz doa ekitalditik ekitaldira: lehen ekitaldian *Maria* agertzen da (3-5. or.); bigarrenean *Miren* (20-21. or.) eta hirugarren ekitaldian *Maria* ageri zaigu berriro (29-30. or.). Elkarrizketen barruan, era berean, bi izenak topatzen ditugu: *Maria* (5. or.) eta *Miren* (20. or.), pertsonaia-izenaren aldaketekin bat etorritik. Akotazioetan joera bera ikusten dugu: *Maria* (3. eta 29. or.) eta *Miren* (20., 21. eta 22. or.).

Bukatzeko, Dolores pertsonaia dugu. Aurreko kasuetan bezala, pertsonaia-izena aldatu egiten da itzulpenean zehar: 25. orrialdean *Nekane* izendapena agertzen da (baita 26. orrialdeko lehenengo esku-hartzean ere), eta 26-28. orrialdeetan *Dolor* (ziurrenik *Dolores* izenaren laburdura) izatera igarotzen da (*Nolor* bat identifikatu dugu 26. orrialdean; litekeena da Agirrek nahigabea egindako akatsa izatea). Elkarrizketen barruan, behin bakarrik aipatzen da *Nekane* izena (10. or.), eta akotazioetan bai *Nekane* (25. or.), bai *Dolores* (27. or.) ageri dira.

Protagonisten izenak aztertuta, argi dago lau pertsonaia horien izenekin gertatzen denak zerikusia daukala aztergai dugun itzulpenaren helburuarekin: Maria Dolores Agirrek antzezleek ikasteko prestatutako testua da, ez inon argitaratzeko prestatua. Hortik

pertsonaien izenak berdin ez mantentzea itzulpen osoan zehar. Bestalde, litekeena da Agirrek itzulpena egun desberdinetan egin izana; agian horregatik agertzen dira pertsonaia-izen desberdinak, eta horiek ere horrexegatik bat egiten dute akotazioetan erabiltzen diren izenekin.

### **3.5. Maila mikrotestuak**

Metodologian aipatu bezala, aztergai dugun itzulpena maila mikrotestuak aztertzeko Hurtado Albirrek proposatutako itzulpen-tekniken zerrenda erabili dugu.

Bestalde, Gradu Amaierako Lanaren helburuak eta mugak zeintzuk diren kontuan hartuta, ez dugu itzulpen osoaren analisi mikrotestuak egin. Aldiz, hiru lagin aukeratu ditugu itzulpena mikro-mailan aztertzeko: lehenengo ekitaldiko lehen agerraldia (1-6. or.), bigarren ekitaldiko lehen agerraldia (13-17. or.) eta hirugarren ekitaldiko bigarren agerraldia (29-35. or.). Aukeraketa ez da zorizkoa izan; izan ere, hasierako, erdialdeko eta amaierako zati bana aztertuta, orokorrean itzulpen osoan zehar erabili diren teknikak zeintzuk izan diren ikusi ahal izan dugu, hori baita lan honen helburua.

Aukeratutako hiru laginak sakon aztertuta, beraz, Maria Dolores Agirreraren itzulpen estiloa zehatzago ezagutu ahal izan dugu. Era berean, gehien erabiltzen dituen itzulpen teknikak zeintzuk diren identifikatu ahal izan dugu.

Hasteko, aipatu beharra dago Maria Dolores Agirrek *Iturri-agor* euskaratu zuenean oraindik euskara batua ez zela guztiz arautu; izan ere, aipatu dugun bezala, 1968ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, taularatu zen itzulpena; beraz, ziurrenik 1967an zehar euskaratu zuen Agirrek *Iturri-agor*. Oraindik urtebete baino gehiago igaro behar zen, hortaz, gaur egun hain ezaguna den Arantzazuko bilera emateko (1968ko urria). Horrenbestez, *Iturri-agor* gipuzkeraz edo erdialdeko euskalkian idatzitako itzulpena da, eta oro har ez ditu betetzen egungo euskara batuaren arauak. Hala eta guztiz ere, Agirre ez zen inoiz izan euskara batu bat sortzearen aldekoa, beti defendatu baitzuen herri-euskara erabiltzea (Auzmendi, 2002: 18).

Bide horretatik, oso euskara jator eta bizian egindako itzulpena da, eta estiloa ere testuaren generora ezin hobe egokitzen da: antzezlan tragiko baten aurrean gaude, elkarrizketez jositakoa; Maria Dolores Agirrek hori aintzat hartu, eta garaiko ahazko euskararen ezaugarriak errespetatzen zituen itzulpen bat egin zuen.

Lehenik eta behin, aipatzekoa da Agirrek hitanoa eta zuka erabiltzen dituela bere itzulpenean. Ahozko euskararen ezaugarrietako bat izan arren, deigarria iruditu zaigu bi arrazoiengatik. Alde batetik, jatorrizkoan ez delako inolako bereizmenik agertzen; hau da, gaztelerazkoan *tuteoa* soilik erabiltzen da. Bestalde, Maria Dolores Agirrek pertsonaien arabera erabiltzen duelako hitanoa edo zuka; zehazki, badirudi pertsonaien arteko harremanaren, adinaren eta sexuaren arabera erabiltzen duela bata edo bestea. Horrela, laginetan aurkitu ditugun adibideetan ikusi dugu zer adizkera erabiltzen duten pertsonaiek haien artean:

PERTSONAIAK	ADIZKERA	ADIBIDEAK
Yerma eta Joan (senar-emazteak)	Zuka	<i>Yerma – Ni gaxo banengo, zuk zaitzea pozik aundiena. (1. or.)</i>  <i>Joan – Zu arkitu nai zaitut. Illargiten guztiz ederra zaude. (35. or.)</i>
Yerma eta Maria (lagun minak)	Noka	<i>Yerma – Abesten ariko intzanan? Ez al den ala? Nik ere abestu egiten diñat, ik? Esaidan... (3. or.)</i>  <i>Maria – Ez aidan galdetu... Ez al den inoiz txori bizirik eskutan estutu? (4. or.)</i>
Yerma eta Bitor (lagunak, baina ez sexu berekoak)	Zuka	<i>Aitor – Neske bada zure izena jarriko diozu noski (5. or.)</i>  <i>Yerma – (Ia negarrari eman ez) Ez... Ez dira neretzat. Mariaren aurrarentza dituzu... (5. or.)</i>
Yermak atsoari (adinean aldea)	Zuka	<i>Yerma – Izildu zaitetz, ixildu! (...) Beste gizona ezagutu nezakela, al deritzazu? (33. or.)</i>
Atsoak Yermari (adinean aldea)	Noka	<i>Atsoa – Zertarako ditun oñak... aldegin ba etxetik... (33. or.)</i>

Taula 1: Hikaren eta zukaren erabilera.

Bigarrenik, oso euskara jatorrean egindako itzulpena den aldetik, aztertu ditugun hiru laginetan etengabe topatu ditugu euskarak bereak dituen esapideak, egitura linguistikoak eta baita atsotitzak ere. Argi ikusi dugu Agirrek ez zuela beldurrik izan sorburu testutik zertxobait aldentzeko eta itzulpena zentzuaren arabera egiteko, gazteleratik hitzez hitz euskaratu beharrean. Azken finean, nabaria da Maria Dolores Agirrek euskal ikusle arruntek arazorik gabe ulertuko zuten itzulpen bat egin nahi izan zuela, eta bide horretatik askotan jotzen du testua moldatzera. Horrela, eguneroko ahozko euskararen erabiliko liratekeen balioak aurkitu ditugu aztertutako hiru laginetan. Adibide interesgarrienak bildu ditugu hurrengo taulan:

ES	EU
MARÍA.- Oye: dicen que más adelante te empuja suavemente con las piernecitas.	Maria – Geroago, aintxoakin taka-taka jotzen omen au. (4. or.)
MARÍA.- Dicen que con los hijos se sufre mucho.	Maria – Umeak azi ta nekeak bizi esan oi den. (5. or.)
LAVANDERA 3. <sup>a</sup> .- Pero aquí se habla.	Garbiketari 5 – Emen txatxala-patxala ugari egiten dan ba. (13. or.)
LAVANDERA 1. <sup>a</sup> .- Todo esto se arreglaría si tuvieran criaturas.	Garbiketari 1 – Ori dana orpo gorri batzukin antolatuko ukene... (14. or.)
NIÑO.- ¡Ay, cómo se quejaba!	Aurra – Atx egiten zun! (31. or.)
VIEJA.- (...) Anda. No te importe la gente.	Atsoa – (...) Tira... Jendearen marmarrari iru zur... (33. or.)
VIEJA.- (Fuerte.) Pues sigue así. Por tu gusto es.	Atsoa – (Sendo) Or konpon ba, horrela nai baden. (33. or.)
JUAN.- Por cosas que a mí no me importan. ¿Lo oyes? Que a mí no me importan. Ya es necesario que te lo diga.	Joan – Neri bost ajola zaizkidanagatik... Entzuten al dezu? Neri bost ajola zaizkidala. Bada garaia argi ta garbi esateko... (34. or.)
YERMA.- Eso nunca. Nunca.	Yerma – Ori ez. Ez ta igundaio ere... (35. or.)

*Taula 2: Euskarazko esapideak.*

Bestalde, oro har sorburu testuaren zentzua mantentzen den arren, ikusi dugu Maria Dolores Agirre jatorrizkotik zertxobait desbideratu dela hainbat kasutan. Euskarazko itzulpenari bizitasuna emateko, batzuetan ikuspegi-aldaketara jo du itzulpenean, eta bestetan anplifikazioak gehitu ditu. Honako adibide hauetan argi eta garbi ikus daiteke:

ES	EU
MARÍA.- No. He comprado encajes, tres varas de hilo, cintas y lanas de color para hacer madroños.	María – Ez ba. Puntillak erosi dizkiñat; iru kana ari ta punpulu txuriurdiñak egiteko, arillak. (3. or.)
VÍCTOR.- Pues adelante. Dile a tu marido que piense menos en el trabajo.	Aitor – Aurrera ba. Esaiozu senarrari, lanean aña saitzeko ortan ere. (6. or.)
VIEJA.- A ver si luego nos dejáis dormir. Pero luego será ella.	Atso alaia – Gerexie bada ere lo egiten utziko al diguzute, baña bai zera... gerora ta zarata ta izkabilla aundiagoa! (32. or.)
YERMA.- ¿Y no podré esperarlo? JUAN.- No. YERMA.- ¿Ni tú? JUAN.- Ni yo tampoco. ¡Resígnate!	Yerma – Etsi egin bear al det pa? Joan – Bai Yerma – Zuk ere bai? Joan – Baita. Etsi zazu bein betiko. (35. or.)

*Taula 3: Desbiderapenak itzulpenean.*

Desbiderapenari begira, oso bitxia da lehen adibidean gertatzen dena. Izan ere, ikusten dugu Maria Dolores Agirrek erabaki zuela *punpuluak* txuri-urdinak izan behar zirela. Ziurrenik, ez zuen itzulpen-aldaketa hori egin jatorrizkoa itzultzeko zailtasunak zituelako; aldiz, litekeena da antzezlanaren taularatuko zen egunagatik moldatu zuela itzulpena: 1968ko San Sebastian egunean estreinatu zen *Iturri-agor*. Horrenbestez, pentsatzekoa da Agirrek ospakizunengatik egin zuela aldaketa hori. Berrero ere, jatorrizkotik aldentzeko beldurrik eduki ez zuela argi gelditzen da.

Itzulpenaren azterketa mikrotestualarekin bukatzeko, itzulpenaren helburua berresten duten bi elementu identifikatu ditugu. Esan dugunez, Maria Dolores Agirrek antzezleek ikasteko prestatutako itzulpena da. Horrela, 13. eta 14. orrialdeetan parentesi artean

sartutako azalpenak topatu ditugu (13. orrialdean, *neskazarrak* eta *ezkon aizpa* terminoak ageri dira *ezkongaiak* eta *koñata* terminoen azalpen gisa, hurrenez hurren; 14. orrialdean, *ezkonaizpak* ageri da berriro *koñatik* terminoaren azalpen gisa). Badirudi antzezleentzat espresuki idatzitako argibideak direla, Agirrerren itzulpena, kasu horietan, gaztelerazko jatorrizkotik hurbilago dagoen aldetik. Bestalde, 34. orrialdean erdarakadatzat joko genukeen izenondo bat topatu dugu: *desesperatuta*. Garbi gelditzen da, beraz, Maria Dolores Agirrek ulermenari eta herri-euskaran erabiltzen ziren esamoldeei eman ziela lehentasuna testua euskaratzerakoan, horrela ikusleek nahiz antzezleek ongi uler zezaten bere itzulpena.

#### 4. ONDORIOAK

Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa sakonago aztertzeak eta *Iturri-agor* itzulpenaren analisia egiteak hausnartzera eraman gaitu. Horrenbestez, ikerketa bukatuta, Agirrek itzultzaile gisa egin zuen lanaren inguruan hainbat ondorio atera ditugu: batetik, itzulpen guztiak aztertzeak atera ditugun ondorio orokorrak; bestetik, *Iturri-agor* analizatzeak ateratako ondorio espezifikoak.

Maria Dolores Agirrek egin zituen itzulpen guztien azaleko ikuspegi bat eman dugu lan honetan. Bide horretatik, ikusi dugu batez ere antzerkia itzuli zuela, eta antzezlanen generoari begira, gehienbat dramak eta komediak euskaratu zituela. Salbuespen bakarra aurkitzen dugu bere itzulpenen artean: hain zuzen ere, Maritxu Urretarekin batera euskaratu zuen ipuina, *Ilargian ere euskaraz* (1967). Itzulpen hori salbu, Agirrek egindako beste hamahiru itzulpenak, esan bezala, antzezlanei dagozkie. Antzerkia euskaratzea aukeratu izana, gainera, zorizkoa izan ez zela egiaztatu dugu garaiko testuinguru sozio-historikoaren bidez: XX. mendearen erdialdean, frankismoa bete-betean indarrean zegoenean, antzerkia euskararen transmisioa egiteko gakoa bihurtu zen. Alde horretatik, Maria Dolores Agirre herri-euskara gordetzearen defendatzaile sutsua zenez, ez da harrizkoa antzezlanak euskarara ekartzea erabaki izana.

Horrez gain, itzultzeko aukeratzen zituen autore guztiak bere garai bertsoak dira: XIX. mendearen amaieran jaiotakoak (Ghéon, Tagore, Lorca eta Pío Baroja), edo, Agirreraren antzera, XX. mendearen hasieran jaiotakoak (Casona, Lozano, Gazzo, Calvo Sotelo, López Rubio, Guerrero Urreisti eta Buero Vallejo). Autore ezagunak aukeratzen zituen, gehienak Espainiakoak. Era berean, itzulgai gisa orokorrean nahiko entzutetsuak ziren obrak hautatu zituen, eta garai hartan aski progresistatza jo zitezkeen gaiak itzuli zituen: drogak, heriotza, emakumearen ahalduntzea, antzutasuna... Beraz, gaiei dagokienez Maria Dolores Agirre itzultzaile aurrerakoia izan zela ondorioztatu dugu.

Gradu Amaierako Lan honen bidez Maria Dolores Agirre itzultzaile gisa sakonago ezagutzeaz gain, *Iturri-agor* aztertzeari esker bere itzulpen estiloa hobe ezagutzea lortu dugu. Aukeratu eta analizatu ditugun hiru laginek hainbat ondorio ateratzera bideratu gaituzte Agirreraren itzulpen estiloari begira. Hasteko, ohartu gara oso euskara jator eta bizian itzultzen duela, eta etengabe erabiltzen dituela euskaraz ohikoak diren esapideak, egitura linguistikoak eta esaerak. Bestalde, herri-euskarari ematen dion garrantzia

agerikoa da *Iturri-agor* itzulpenean, ez baitu terminologia edo egitura konplexurik erabiltzen eta, horrenbestez, edozein euskaldun arruntek ulertzeko moduko testua da.

Bide horretatik, gogora ekarri nahi dugu testuinguru sozio-historikoa azaltzean plazaratu dugun hipotesi bat: Agirrerren itzulpen estiloari dagokionez, azpimarratu dugu Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolako zuzendariak, Toribio Altzagak, ziurrenik eragina izan zuela bere itzultzeko moduan, adiskide eta irakasle izan zuelako. Gorago esan dugunez, Altzaga itzultzaile herrikoien artean kokatzen dugu; hots, bere itzulpenetan herri-euskaratik hurbil zegoen euskara erabiltzen zuen irakurle arruntek uler zezaten. Hori aintzat hartuta eta *Iturri-agor* aztertuta, gure hipotesia baieztatzeko iruditzen zaigu: ez dago zalantzarik Maria Dolores Agirrek erabiltzen duen euskara oso herrikoia eta lagunartekoa dela, euskaldun arrunt guztiek ulertzeko modukoa. Alde horretatik, argi dago Agirrek itzultzen zuenean beti buruan edukitzen zituela antzezlanak ikustera joango ziren euskaldunak eta, era berean, antzezlanak taularatuko zuten aktoreak: bere helburua garai hartako edozein euskaldunek ulertzeko moduko itzulpenak egitea zen.

Horri lotuta, ikusi dugu Agirrek ez duela beldurrik izan sorburu testutik zertxobait aldentzeko eta itzulpena zentzuaren arabera egiteko, gaztelarazko jatorrizkoak dioena hitzez hitz euskaratu ordez. Horrela, hainbatetan jotzen du testua moldatzera, beti ere sorburu testuaren zentzutik gehiegi desbideratu gabe eta euskal irakurle edo ikuslearen ulermena kontuan hartuta.

Bukatzeko, nahiz eta Maria Dolores Agirrerren itzulpen bakarra aztertuta ezin dugun ondorio zehatzik eman edo ziurtasun osoz esan zer-nolako itzultzailea zen, Gradu Amaierako Lan honen helburua izan da horren ezaguna ez zaigun emakume itzultzaile bat, kasu honetan Maria Dolores Agirre, sakonago aztertzea eta hobe ezagutzera ematea.



## 5. BIBLIOGRAFIA

- ARMIARMA. *Literatur Aldizkarien Gordailua*. Interneten eskuragarri: <<https://andima.armiarma.eus/>> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- AUZMENDI, L. (2002). *Maria Dolores Agirre*. Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Interneten eskuragarri: <<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/28%20agirre.pdf>> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- AUZMENDI, L. eta BIGURI, K. (1996). *Itzulpen Antologia I*. Donostia: EIZIE. Interneten eskuragarri: <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/antologia/antologia1>> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- BIBLIOTECA VIRTUAL MIGUEL DE CERVANTES. *Yerma, Federico García Lorca*. Interneten eskuragarri: <<http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/yerma-775116/html/>> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- EUSKALTZAINDIA. *Literatura Terminoen Hiztegia*. Interneten eskuragarri: <[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&lang=eu&layout=lth\\_list&search=1&view=frontpage&Itemid=474](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_list&search=1&view=frontpage&Itemid=474)> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- Iruneko 1968ko jaietako programa*. Interneten eskuragarri: <<https://www.irun.org/archivo/down/1960-1969/1968B.pdf>> [Azken kontsulta: 2021eko maiatzaren 28a]
- Iturri-agor*, Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gelatik eratorritako dokumentu argitaragabea.
- JAKA, A. (2011). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Tesia. Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea. Interneten eskuragarri: <[https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Aiora\\_Jaka\\_TESIA.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Aiora_Jaka_TESIA.pdf)> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- KOLDO MITXELENA LIBURUTEGIA. *Funtsak*. Interneten eskuragarri: <<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKKMKulturuneaWEB/biblioteca.do?fondos&lng=eu>> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]

- MENDIGUREN BEREZIARTU, X. (1995). *Euskal itzulpenaren historia laburra*. Donostia: Elkar.
- SUSA LITERATURA. *Maria Dolores Agirre*. Interneten eskuragarri: <<http://www.susa-literatura.eus/emailuak/agirre-md/>> [Azken kontsulta: 2021eko maiatzaren 28a]
- URKIZU, P. (2003). “Maria Dolores Agirre eta Euskal Antzertia” in *Egan*. Donostia: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. 3/4, 27-54. Interneten eskuragarri: <[http://www.liburuklik.euskadi.eus/applet/libros/JPG/fs02/RSBAP-HEM\\_0001/2003\\_06\\_01/RSBAP-HEM\\_0001-2003\\_06\\_01.pdf](http://www.liburuklik.euskadi.eus/applet/libros/JPG/fs02/RSBAP-HEM_0001/2003_06_01/RSBAP-HEM_0001-2003_06_01.pdf)> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]
- WIKIPEDIA ENTZIKLOPEDIA ASKEA. *Maria Dolores Agirre*. Interneten eskuragarri: <[https://eu.wikipedia.org/wiki/Maria\\_Dolores\\_Agirre](https://eu.wikipedia.org/wiki/Maria_Dolores_Agirre)> [Azken kontsulta: 2021eko ekainaren 1a]

**ERANSKINA: MARIA DOLORES AGIRREREN**

***ITURRI-AGOR***

YERMA

GARCIA LORCA

LEHENGO LAUKIA

C-384

F-5

(Ezkutazapia altxatzean, Yerma lo dago, alxian exerita. Oñetan saskitxoa ostekoskin. Amets-argi nabarmena, erakuztokiak. Zuriz jantzitako aurraes kutik daramala, artzaia sartzen da ankapuntetan. Ordulariak kanpaiak. Ar tzatzaia irteten danean, lengo argiaren ordez, udaberri goizeko argi-alai. Yerma esnatu egiten da.)

Abestia barrendik

Yerma.- Jon...entzun...Jon....

Jon - Banoakizu

Yerma - Garaia dezu

Jon - Uztarbeiak al ditugu?

Yerma - Joanak dira

Jon - Gero arte (Ertetera dijoa)

Yerma - Katillukada bat esne?

Jon - Zertarako?

Yerma - Lanpetua zabilta ta lanari aurre emateko aulegia zaude.

Jon - Gizonek zenbat eta zimelago ta orduan da gogorrago. Altzairua bezin sendo.

Yerma - Baña zu ez. Ezkondutakoan besterik ziñan. Orain arpegia ere zurbil. Eguzkiak joko ez baziñu ere... ez zurbillago. Neri berriz eder zu ibaian igarian ibiltzea. Baita itutea degunean tellatura igotzen ere Ogeita lau illabete ezkondu giñala ta zu gero baño gero goibelago ta igarrago... goikoaz bere aziko baziña bezela.

Jon - Bukatu al duzu?

Yerma - (Jeikiaz) Ez gaizkitzat artu. Ni gaxo banengo, zuk zaitzea pozik aundie ena. Nere emaztetxoa gaxo dago ta bildotxik guriena ilko diot, janari - goxoa egin dezaioten. Nere emaztea gaxo dago ta ollo gantz au gorde bear diot, bularra xamurtu dezaion. Onoko ardi larru auxe eramane bear diot elurra danean oñak bildu ditzan...

Ni onelaketxea nauzu... Orregaitik zaitzen zaitut orren ederki.

Jon - Milla esker.

Yerma - Bai baña zuk ez dezu nai nik zaitzerik.

Jon - Ez dukat ezer da. Oyek guztiak zure irudipenak. Lan aundiak daradizkit eta ez naiz urtetik urtera gazteago izango.

Yerma - Urtetik urtera nik eta zuk emen jarraituko ote degu ba...

Jon - (irriparreka) Jakiñaba ta pake askoan ala ere. Nekazaritza-lanak ondo baño obeto dijoaz, sema alabentzat ere ez degu dirurik bear...

Yerma - Seme alabarik ez degu... Joni

Jon - Zer?

Yerma - Ez al zaitut nik maite?

Jon - Maite naizu.

Yerma - Ezagurtzen ditut nik neskatzak, senarrakin beratu bañolen negar egiten zutenak, dardarka jartzen ziranak. Negarrik egin al nun nik len-dabizikoz zukin oieratu nintzanean? Ez al nun abesten mendelak iriki takoan? Ez al nizun esan: Auxen da sagar usai gazoa maindira auena.

Jon - Orixe esan zenun!

Yerma - Gure amak negar egin zun, aren ondotik pozik sakabanatu nintzalako Eta egia zan! Ez zan iñor ni baño alaiago eskondu... eta ala ere...

Jon - Ixildu zaitia. Zuk esan gabe ere, badago or eten gabeko jarduna ta arririk gogorrena zulatu egiten du eta xakurbelrrak sortzen dira - bertan. Jendeak dio ez dirala ezertarako baña arekere loratu egiten dira.

Jon - Itxain egin bear!

Yerma - Bai, baña alkar maitatuaz (Yerma k bere senarra besarkatu ta musuka darabilki.)

Jon - Ezeren bearik ba dezu esan. Ekañiko dizut. Ez dit onik egiten zu er-teteak. Badakizu.

Yerma - Ez nauzu iñoiz irteten

Jon - Obeto zauden etxean.

Yerma - Bai

Jon - Kalea lanik ez dunarentzat da.

Yerma - (Goibel) Orixe.....

Senarra irteten da ta Yerma josteko saski aldera dijoa. Sabela leun igortzi eskuz, besoak jaso, ao zabalka ederra bota ta exeri egiten da. Josteko zapiaz magalean)

Nundik ator maite, ene txiki ?

"otz gogor gallurretik"

Zer nai duk maite, ene aur ?

Zure soñeko cial epela.

(Jostorrazari aria sartzen dio)

Adarrak eguzkian astindu

Iturriak inguruan triska

(Aurrakin ari balitz lez)

Ataruab txajyrraj zaunka

Zugaitzetan aizeak txistu,

Beiak muuu itxaiari

illargiak elleak kixkurtu.

Zer nai txiki orren urrundik ?

(Ixik unea)

Zure bularreko mendi zuriak  
Adarrak eguzkitan astindu  
iturriak unguruan triska !

(Josi egiten du)

Baietz esango diat ene txiki  
autsi-apurtutta iretzat ni.  
Auxen dek gerrietako miña,  
ire lenengo seaska biguña !  
Ene maite, noiz etorriko atzakit.

(Ixil unea)

Zure aragiak urkitz-usaia darionean  
Adarrak eguzkian astindu  
iturriak inguruan triska i

( Yerma abestu egiten du. Atetik María sartzen da pardela eskuetan dula)

Yerma - Nundik ator ?

María - Dendatik

Yerma - Dendatik orren goiz ?

María - Ez dakiñala zer erosi dendan ?

Yerma - Zer erosiko itunan ? Gosaltzeko akeita, gozokia ta ogiak.

María - Ez ba.Puntillak erosi dizkiñat; iru kana ari ta punpulu txuriurdiñak egiteko, arillak. Dirua senarrak zetxeukanan eta berak eman zidan.

Yerma - Txanbran bat egin nai ?

María - Bai zera...zeragatik den...badakin ?

Yerma - Zer ?

María - Zertu egin naizela

(Buru makur gelditzen da neska. Yerma berriz jeiki ta ederretsirik begiratzen dio)

Yerma - Bost illabete ta.....!

María - Bai

Yerma - Eta konturatu egin aiz

María - Noski

Yerma - (Jakín miñez) Zer nabaitzen den ?

María - Ez zekiñat bat.... neke-larria

Yerma - Neke-larria! (María'ri elduta) Baña...noiz iganatu den ?...Esaidan...  
i gertu-gabe engonan.....

María - Bai, ez gertu

Yerma - Abesten ariko intzanan? ez al den ala? Nik ere abestu egiten diñat, ik?  
Esaidan...

- María - Ez aidan galdetu..... Ez al den iñoiz txori bizirik eskutan estutu ?
- Yerma - Bai...
- María - Orrelaxe ba... baña odolaren barrendik
- Yerma - Ori edertasuna! (Begiak zoratuta)
- María - Arri ta zur natxioan...Ez zekiñat ezer.
- Yerma - Zertaz?
- María - Egin bear detanez...Amari galdetuko zionat.
- Yerma - Zertarako? Onezkero aaztu zaizkion.Poliki ibilli eta ezpañetan larrosia baukakene bezin legun arnasa artu.
- María - Geroago, aintxoakin taka-taka jotzen omen au.
- Yerma - Orduantxe esaten zaion nerekutuna...orduantxe geyena maite ...
- María - Oiek orrela dirala. lotsatu egiten naun.
- Yerma - Zer esan din senanrrak?
- María - Ezer ez
- Yerma - Biotzez maite al au?
- María - Ez zidan esaten, baña nere ondoan jarritakoan, aren begiak, bi orritxon antzera dar-dar egiten diñe.
- Yerma - Bai al zekiñan ark ik zertu denala...
- María - Bai
- Yerma - Eta zergatik zekiñan?
- María - Etzekiñat ba, Ezkondu giñan gauen, jarri aua nere matrallean eta eten - gabe ortatxen jardun ukanan. Nere irudi gure-aurtxoa, ark belarritik - txirristan bialitako su-bizizko mendi usoa dad.
- Yerma - Zoriontsua, i.
- María - Baña ortan i ni baño jakitunago aiz.
- Yerma - Ez zidan ba onik ekartzen
- María - Egia! Zergatik ote den ori? Ire garaiko eskonberri guztietan i bakarriz aiz...zereko zerik ez duanik.....
- Yerma - Alaxen den. Oraindik garai dan baña. Elena´k eskondu ta iru urtera izan ziñan eta gure amaren garaiko askok, oraindik geroago. Guk herriz bi ur te ta ogei egun...egon aldi luzetxoa. Ez den ba bidezko ni emen arkitzea, etzekiñat zergatik, baño, gau askotan atarira ertegoaz, gaiztota egingo nau ni.
- María - Baña atorkit ume...Atso lez ari aiz. Zer zionat! Ezin galdu ziteken itxo ropenik. Gure amaren aizpa batek, amalau urtera izan ziñan eta ikusi izan bananan... auñaren edertasuna...!
- Yerma - ( Lei biziz) Zer egiten ziñan ?

- María - Zezen koxkorak bezelaxe negar, milla kirkillek txirrika, ez alako soñurik...Noiz nai pixa zar-zar, urrena mototxetik tira eta koxkortu zanean, arpegian atzamarka...
- Yerma - (Parrez) Baña miñik gabe.
- María - Atx... ark ere amaten ziñan
- Yerma - Ba... Nik ikusi izan diñat nere aizpa bularrak zartatu ta aurrari titia ematen... Oñaze ederrik artzen ziñan baña ura oñaze ezkoa,ona,osasungarria uanan.
- María - Umeak azi ta nekeak bizi esan oi den.
- Yerma - Gezurra. Ori ama txepel negartiak ziotene. Zertarako dizkiñe ba? Semea edo alaba izatea ez den lore sorta bat izatea. Azten ikusiko baditugu, gorriak eraman bear. Nik uste ortantxe dijoakigula odolaren erdia. Baña ori ona den...ederra...sendoa... Emakume bakoitzak ba din lau bost bat seme alabentzat aña odol....
- Ez izateak berriz odola pozoi biurtzen...neri ori bera gertatuko zaidan...
- María - Ez zekiñat zer detan ?
- Yerma - Lendabizikoan, izu-larria izaten omen den.
- María - (Lotsati) Itxoin egin bear...Ik ederki josten den da...
- Yerma - (Pardela artuaz) Ekar zan. Bi soñekotxo ebakiko dizkiñat...Eta auek
- María - Pixoialak ditun.
- Yerma - Ongi zion.(Exeri egiten da)
- María - Orduan...gero arte...(Yermari urbiltzen zaio.Onek sabela bi ezku ez maitekiro artzen dio.)
- Yerma - Kaleko arru borobilletan kontuz...arretaz ibilli
- María - Agur( Musu eman da erten egiten da)
- Yerma - Etorri lenbailen.(Yerma lenengo artan bezelaxe gelditzen da.Gero gurai-zak artu ta abakitzen asi.Bittor erteten da) Agur Bittor.
- Bitor - Nun dabilkigu Jon? Sakona ta itzak aundikoa da.
- Yerma - Soroan
- Aitor - Ze josten ari zera ?
- Yerma - Ume zapaiz ebakitzera ninjoakizun.
- Aitor - (Irri-parrez) Txantxetan...?
- Yerma - (Parrez) Inguruan apaingarria jarriko diet.
- Aitor - Neske bada zure izena jarriko diozu noski.
- Yerma - (Dardaraz) Nola ?
- Aitor - Poz artzen det... zugatik batez ere.
- Yerma - (Ia negarrari emanaz) Ez...ez dira nerentzat. Mariaren aurrarentza ditu zu...
- Aitor - Tira ba, ia ura ikusita zu ere eragiten zaitun...Etxe ontan aur baten - beaña dago.
- Yerma - (Larri) Bearra bai....!



Aitor - Aurrera ba.Esaiozu senarrari, lanean aña saitzeko ortan ere.Dirutza -  
agin nai du ta bilduko du. Eta nori uzteko dio beste numaura dijoane-  
an? Ni ardiakin noa. Jon´i esan,erosi zizkidan biak jaso ditzala nai  
ditunean eta badakizu...zereko zer ortan...eskondu dezala...(parrez  
joaten da).

Yerma (andre-miñez)

Ori! Sakondu dezala!!  
Baietz esango diat ene txiki  
autsi apurtuta iretzat ni.  
Auxen gerrietako mina  
ire lenengo seaska biguña!  
Ene maite noiz etorriko atzakit?  
Zure aragiak urkitz-usaia darionean

(Yerma,oldozketan jeiki, Bitor egondako leku berean jarri ta aysa artzen du  
sendoki, mendi aizera artuko balu bezela. Urrena gelako beste aldera dijoa,  
zerbaiten billa balebil bezela eta andik etorri ta exeri egiten da. Berriro  
artu zapiak eta josten asten da eta begiaak uno batean josorik ditula geldi  
tzen da.)

EZKUTAZAPIA

BIGAREN LAUKIA

(Landa.Yerma ateratzen da.Saskia dakarki.1ª atsoa ateratzen da)

Yerma - Egunon.

Atsoa- Egunon etxeko alaba ederrari.Nora oa?

Yerma - Senarra lanean ari da ta arixe baskaria eraman da natorkizu.

Atsoa - Eskonberria ala ?

Yerma - Ez pa, iru urte.

Atsoa - Seme alabarik ?

Yerma - Ezta...

Atsoa - Ba! Izango ditun.

Yerma - (Irrikiz) Zuk ala uste?

Atsoa - Jakiñabe! (Exeri egiten da) Ni ere senarrari bazkaria eraman da natxetorren.Aguretu arren lana egiten diñark oraindik.Eguzkia bezin eder - diran bederetsi seme dizkiñagu,baña neskari ez.Orregatik natxebillen batetik bestera.

Yerma - Zu ibaiaren beste aldetik bizi zera.

Atsoa - Bai.Errotetan.Zein senditakoa aunat ?

Yerma - Ni Txomin artzaiaren alaba nausu.

Atsoa - Beraz,beraz.Txomin artzaia.Esagutu niñan.Jende sintzos...Jeiki, isardi patsetan egin lana,janari eskaxia ta il.Beste ezer ere ez.Jaiak eta - azokak besteentzat.Gizaki ixillak.Zuen osaba batekin ezkondu nintekenan baña bai zera! Mari mutill ona neu...nun nere gogoan nere zankoa ibilli oi ziñukan.Amaika aldiz goizaldian jeiki ta atarira txitua. (Algara) Parre egingo didan bai baña-...Bi senar izan dizkiñat eta - amalau seme alaba.Bost il,neskak...ala ere ez natxion goibel,luzaroan bizi nai diñat...Nik auxe zipnat:Pikondoak zenbat irauten dute eta e-etxeak? Eta gu demoniosko emakumeok,utsakatik zearo ondatuta.

Yerma - Galdera bat egin nai nizute.

Atsoa - Bote bai (Begiratu egiten dio)Bazekiñat zer esango didanan... Orretaz,ez da itzedirik ere...(Jeiki egiten da)

Yerma - (Gelditu aziaz)Zergatik ez? Zu entzunda itxaropenez bete nauzu. Aspaldi ontan atso zarrakin itz aspertua egiteko irriki biziz nengon. Bai aldakizu,nik jakin egin nai nuke,jakin,bai...Zuk erakutsiko didazu...

Atsoa - Zer?

Yerma - (Abotsa jetxiaz) Zuk dakisuna.Zergatik nago ni antzu...legor...Nere bi zi osoan,egastiak zaitzea besterik ez al det pa egin bear... edo leyo-etako apaingarriak lixatu? Ezpa. Zuk esan bear didazu zer egin eta nik bear dana egingo det...baita nere begi niniak,jostorratzez zulatzeko - agintzen ba didazu ere...

- Atsoa - Nik? Ja...ja...Nik etzekiñat ezer..soz gora jarri ta kito...Seme alabak,ura bezin ugari azaltzen ditun. Ai enetxua...Gazte ta eder aiz. Lurra zapaldu erduko,kale ertzian zaldia irrintzika...Tira utzi nazan neska,ez zidan itzegin azi.Gogoeta asko zebizkiñat buruan baña ez dizkiñat esan nai.
- Yerma - Zergatik ez? Nik eta senarrak erretxetzata bakar bakarrik itzegiten degu.
- Atsoa - Aizan,senarra gogoko al den?
- Yerma - Nola?
- Atsoa - Maite al denanan? Eder al zain?
- Yerma - Ez dakit.
- Atsoa - Urbiltzen zaiñanian ez al din dardarrarik eraginazten? Ez al zain logele antzik sortzen ezpañak urreratutakoan?Esaidan.
- Yerma -EZ det iñoiz nabaitu.
- Atsoa - Beñerez? Ez ta dantzan abillenean ere?
- Yerma - (Oroituaz) Baditeke...Bein batean...Bitor...ek...
- Atsoa - Jarrai zan...
- Yerma - Gerritik eldu ta nik utzik ezin esan...Beste bein,mutiko gastea zala... errekalde batetik bestera besoetan artuta eramán niñunena,ikara sartu z zitzaidan...onen lotsatia ni beti...
- Atsoa - Ta senarrakin...
- Yerma - Senarrakin besterik da.Aitak eman da nik poz pozik entzat artua, egi utsa orra,bere andregai egin nintzanerako..... Seme-alabak gogoan nerabizkin, eta bere begietan nere burua ikusten nun txikia,aur biurtua neu nere alaba banintz bezela.
- Atsoa - Nik ez berriz.Bear bada orregatitxek ez den aurrik izan...senañak begietatik biotzeraño sertu bear din neska...Txintxustak askatu ta edateko ura bere sotik artu.Era ontan ugaritzen den mundua.
- Yerma - Zurea bai,nerez ez.Neri bururatzen zaizkidanak,gure txikiak egingo ditula, ziur nago.Ni senarraren eskuetan jarri nintzan,eta jartzen naiz, beti seme albaren itxaropenez, iñoiz ez, jolasteko.
- Atsoa - Orrela ago i,sabel-uta.
- Yerma - Utsa ez,garrotoz betetzen ari zait.Esaidazu...nerea al da errua? Gizonagan,gizona bakarrik arkitu bear al da ba? Zer esango dezu orduan,cian sa paira begira uzten zaitunean eta bera gira bira eman da lotara.Zer izan bear det orduan gogoan,nere senarra ala nere erraietan sortu ditekena? Nik ez dakit...baña esaidazu arren...!!! (Belaunikatzen da)
- Atsoa - Lorearen irikitzea...! Gazte ederra aiz...ta utzi nazan,ez geyago mintzo azi.Ez diñat nai ta. Gizatasun gaietan or konpon...Ik jakingo den zer egin.Dana dala,ez ukene orren kotarua bear...

- Yerma - Ni bezela mendian azi diran neskatxari, ate guztiak isten dizkiete. Gu-  
ret~~at~~at dana itz erdika, imintzioka ta kiñuka... Ezin ezer ulertu. Zu ere -  
berdin, ixildu egiten zera, asko jakin itxuran ixildu ta dana ukatu, ega -  
rriak ito-zorian dagon osoko oni.
- Atsoa - Beste emakume bareagoko bati itzegingo natxioken, baña iri ez... Urteak d  
dizkiñat bizkarrean, da bazekiñat zer diodan...
- Yerma - Orduan Jainkoak lagun nazala?
- Atsoa - Jainka k ez. Neri erzaidan sekulan on izan Jainkoa. Noiz konturako ote ze  
rate ez dala Jainkorik. Gizonak, gizonaekoak ditun lagun egin bear dite-  
nak...
- Yerma - Zergatik esaten didazu ori, zergatik?
- Atsoa - (Atereaz) Ata Jainko batek bear likin, naiz ta txikia izan, mendi basoetako  
poza loitzen duten azi usteldun gizonei tximistak bialtzeko.
- Yerma - Ez dakit zer esan nai didazun...
- Atsoa - Nik bazekiñat pa ta kito. Ez ari goibeldu. Oraindik gaztea aiz...  
Nik ezin ba ezer egin... (Badijoa. Bi neskatxa azltzen dira).
- Andre 1 - Baztar guztietan jendea arkitu diñagu.
- Yerma - Garaia alakoa, gizonak, uzta biltzen, eta bazkaria eramane bear. Zaarrak baka  
rrik etxean.
- Andre 2 - Errira al oa ?
- Yerma - Aruntz natxian.
- Andre 1 - Ni presaka naun ba. Aurra la utzi diñat eta etxean iñor ez.
- Yerma - Ua ba arin. Aurrak ezin utzi zitezken bakarrik... Etxean txerririk bai al  
dezute ?
- Andre 1 - Ez baña ala ere, egia dion. Banetxian laisterka.
- Yerma - Orrelaxe gertatzen ditun ez bearrak. Atea itxita utzi dan, noski.
- Andre 1 - Jakiña
- Yerma - Bai baña etzerate konturatzen txidia zer danik. Edozer uskerik umea garbi  
tu dezaken. Jostorratza-dala... ur pixkar dala...
- Andre 1 - Egia. Banatxian laisterka... Ez oraindik ondo konturatzen.
- Yerma - Tira...
- Andre 2 - Lau edo bost. baitukene ez ukene orrela itzegingo.
- Yerma - Zergatik? Baita berrogeibaleuzka ere...
- Andre 2 - Dana dala ni ta i batere gabe lasaiago bizi gaitun.
- Yerma - Ni ez
- Andre 2 - Ni bai ba. Orixen den ardura! Gure amak ere neri, belar ura ematen zidan -  
izan ditzadan eta urrillean, etzekiñat zein Santurengana eramango omen  
natxian... Lei biziz eskatutakoari ematen omen zizkion. Gure amak nai eskatu  
ko din baña nik ez.
- Yerma - Zergatik ezkondu aiz pa ?

Andre 2 - Eskondu azi egin nautelako. Danak ezkontzen ditun... Onela bagoaz aurk ez den eskongairik geldituko, gaztetxoak bakarrik. Gañera... asko... elizara joan baño len eskontzen gaitun... Gañera batzuen batzuk eliza ra dijoanerako... Badakin ama yenak ere, alaba eskondua ikustea nai... Nik berriz emeretzi urte ta garbiketa ta aukaldaritza ta gañentzekoak aspertu egiten natxiene. Egun osoan gogoko ez diran lanak egiten. Zerta rako? Eskondu gabe ere oraingotxe bizikeraren berdiña gatxeanakiñana.. Atsoen txorakeriak... beti gazteak ezkondu azien...

Yerma - Ixil adi. Ez ezan orrelakerik...

Andre 2 - Itzat ere buratik egindakoa izango naun... Erua...! Erua!...! Ja... Ja.. Bai al dakin zertaz konturatu naizen... jende geyena etxeetan sartuta gogoko etzaiona egiten ari dala. Kaleetan barrena ederkitxo ibiltzen e ez pa ba da. Ni bai baintzat. Ez naun batetik bestera gelditzen... erre kara joan... ezkilak jatzera kanpandorrea igo edo kopatxokada bat patar edan...

Yerma - Onek esango ditunak. Umeegia aiz...

Andre 2 - Jakiña baño ez natxion burutik. (Parre egiten du)

Yerma - Zuen ama erri-goieneko etxean bizi al den ?

Andre 2 - Bai

Yerma - Azken etxean?

Andre 2 - Baietz

Yerma - Amak izena nola din?

Andre 2 - Nekane, zergatik galde egiten didan?

Yerma - Utsagatik

Andre 2 - Zerbaitegatik galdetu den?

Yerma - Etzekiñat pa. Zerbait esan bear da galdetu...

Andre 2 - Or konpon... Ara...! Senartxuari bazkaria eramanten natxian (ja, ja, ja) Eta ortaratu bat... Damua zakelean banetxeukan...

Yerma - Zer damu gero ?

Andre 2 - Ezkondua... Orain nere senarrangana esan bearrean nere senargaia esan bear nikin. Ez al den orrela? (Ja.. ja.. ja...) Bazian onoko ere au... (Parre alaika erteten da) Agur....!

Bitoren abetsa (Abestuaz)

Zergatik lo bakarrik, artzai

Zergatik la bakarrik?

Nere artillezko tigungarrian

Obeto lo egingo

Zergatik orren bakarrik, artzai?

YERMA (Entzunaz)

Zergatik lo bakarril artzai?  
Nere artillezko bigungarrian  
Obeto lo rgingo.  
Ire estalki, arri illuna  
artzai  
Ire aintziarrezko alkandora  
artzai  
neguko zume arreak  
ire oiko gaua.  
Aritzak, orratzak jar,  
artzai  
Ire burkopean  
artzai  
emakume abotsa iduri  
ta erreka pollpolla izaki.  
Artzai, artzai  
Zer nai mendiak igandik  
artzai?  
Belar samihnezko mendia  
nor ari dek i iltzen?  
Bass-otearen arantzak.

(Yerma ertetera dijoa ta Bitor'ekin tipo egiten du)

- Bitor - (Alai) Nora dijoa etxeko ederra?  
Yerma - Zu ari al zifian abeslari?  
Bitor - Neu, bai.  
Yerma - Bai ederki... Ez nizun sekula entzun  
Bitor - Ezetz?  
Yerma - Orren abota sendoa, gañera. Aua zearo betetzen dizun ur zurrustada dirudi.  
Bitor - Alai nauzu  
Yerma - Egia  
Bitor - Zu beriz goibela  
Yerma - Ez naiz nerez, baña goibel egoteko ba ditut zergatitakoak...  
Bitor - Zure senarra berriz zu baño areagoa.  
Yerma - Ura bai. Legorra berez.  
Bitor - Beti orrelakotxea izaki. (Ixil-unea Yerma exerita dago) Bazkaria ekartzera  
atorria?  
Yerma - Bai. (Yerma'k begiratu egiten dio. Txil-unea) Zer daukazu or?  
(Aurpegia erakutsiaz)  
Bitor - Sun?

(Yerma jaiki ta Bitorri urbiltzen zaio)

- Yerma - Emen... masaillean, erre-umea dirudi.

- Bitor - Ez da ezer.
- Yerma - Iruditu egin zait.(Ixil-unea)
- Bitor - Eguzkiak erre nunbait...
- Yerma - Baditeke...(Ixil-unea. Gero baño gero luzeagoa...izintzio senditik gabe, bien arteko burruka asten da.)
- Yerma - (Bardarka) Entzuten?
- Bitor - Zer?
- Yerma - Negar-otsa.
- Bitor - (Entzunaz) Ez...
- Yerma - Aurrenbat iruditu zait
- Bitor - Bai?
- Yerma - Ementxe urbil.Ito sorian dagoanaren negar otza zan.
- Bitor - Inguru austan ume asko ibilli oi da igali arrapatzen...
- Yerma - Bai zera...Aur jaio berriarena zirudin(Ixil-unea)
- Bitor - Ez det ezez entzuten
- Yerma - Nere amets txoroaz...(Bitor´i begira begira artzen zaio,mutillak ere ori bera egiten du,ta orduan Yerma´k bildurrez bezela makal makal beste alde ra begiratzen du.Jon erteten da).
- Jon - Zer egiten dezu oraindik emen?
- Yerma - Berruketan ari giñan.
- Bitor - Osasun (erten egiten da)
- JOn - Onezkero etxeratua bear zenun...
- Yerma - Ezarian ezarian,dembora pasa
- Jon - Ez naiz konturatzen zertan.
- Yerma - Txorien txorrotxioak entzunaz...
- Jon - Ez da jaizki.Berriz ere jarriko dezu zuk itz-bidea
- Yerma -(Indartxu) Zer diezu?
- Jon - Ez det zugatik esaten,jendiaren asamesagatik...
- Yerma - Bost ajola neri jendenardagarria...
- Jon - Itxusi emeten du emadumeak...
- Yerma - Au emakumea banitz...
- Jon - Utzi dezagun jarduna.Zoaz atxeruntz(Ixil-unea)
- Yerma - Ondo da.Etxean zai izango nauzu.
- Jon - Gaur ez itxoin.Gau osoan lanean ariko naiz. Lurrak urez atzen... Legortea degu ta ur gutxi dator...Eguakiaren jeikiera arte nerez da ta lapurrngatik zaitu bearra daukat.Oieratu zaitez eta lo egin.
- (Yerma antzerki era)
- Yerma - Lo egingo det! (Jon egiten da)

BIGARREN EGINTZA

Lenengo laukia

(Ezkutazapia altxatzean,erriko emakumeak (iturri) amildegiko uretan zapiak garbitzen ari dira or emenka sakabanatuta.)

Abestu egiten dute:

Erreka ur otzetan

Ire galartzu garbitu

Urkitz beroa iduri

Ire parreak.

Garbiketari 1- Berriketak ez zidan onik egiten.

Garbiketari 5- Emen txatxala-patxala ugari egiten dan ba.

Garbiketari 4- Ortan etzion okerrik

Garbiketari 5- Izen ona nai dunak irabazi dezala.

Garbiketari 4-

Erle-belarra aldatu niñan

azitzen ikui ere bai

Izen inak nai dunak

bide zuzenetan dabillela(Danak parre)

Garbiketari 5- Orrela itzegiten den.

Garbiketari 1- Aztarran garbirik ez erdia jakin

Garbiketari 4- Senarrak berakin bizi izatera eramán omen dizkin bi arrebak...

Garbiketari 5- Ezkongaiak...? (Neskazarrak) ?

Garbiketari 4- Bai...Len eliza zaitzen ziñenan eta orain koñata (ezkon aizpa) zaitu ko diñe.Ni ez niñuen oiekin biziko,ez ta...

Garbiketari 1- žergatik ez?

Garbiketari 4- Bildurtu egiten natxiana...Bat batetan illobian sotzen diran orri aundien oiek antza diñe.Argizaiez igortzitakoak iduri.Alde antziz jiratuak...oiek jatorduak ere,argi-ontzitik artutako olioz maniatuko - dizkiñe.

Garbiketari 3- Etxera joanak al situzten?

Garbiketari 4- Atzo ezkeroztik.Senarra berriro lurrak lantzera omen zijoan da...

Garbiketari 1-Baña jakin al ziteken zer gertatu dan ?

Garbiketari 5-Erañeungo gau osoa,etz egin arren atarian exerita igaro omen ziñan.

Garbiketari 1-Zer dala ta?

Garbiketari 4-Etxian ezin egona.Ez din azpian arrapatuko.

Garbiketari 5-Antzu auek orrela ditun.Etxeko lanak egin bearrean,tellatura igo ta errekan oñutsik ibiltzen zaien gogoko.

Garbiketari 1-Eta i nor aiz,orrela jarduteko.Ez din seme-alabarik ez, baña ez bere erruz.



- Garbiketari 4 - Aizan seme-alabak,nai ditunak izaten dizkin.Eta milixka gexa ta ke men gabeko auek ala-alakoak ditun gero sabela ziaurra eramateko.(Danak parre)
- Garbiketari 3 -Eta aukerakoak,apain eta pinpirin jantzi ta,senarra ez dan beste ba ten billa ibiltzeko.
- Garbiketari 5 -Orixe egi aundia?
- Garbiketari 1 -Baña zuek beste norbaitekin ikusia al dezute?
- Garbiketari 4 -Guk ez baña bai jendeak
- Garbiketari 1 -Betiko leloa...jendeak...!
- Garbiketari 5 -Bi aldiz edo ikusi ote dituzten...
- Garbiketari 2 -Eta,zertan ari itunan...?
- Garbiketari 4 -Itzegiten...
- Garbiketari 1 -Itzegitea ez den pekatu.
- Garbiketari 4 -Baña begiratu besterik den.Gure ama zanak esan oi ziñan emakumeagatik...Ez zala berdin loreri begiratu edo gizonaren iztarrei...eta orrek begi ninietan zarria zeramakin...
- Garbiketari 1 -Baña nori?
- Garbiketari 4 -Bati,entzun al den ala egitz-xio esatea nai den(Parreak)Eta begiratzen ez dunean,bakarrik dagolako,aurrean ez daukelako,begi ninietan zarria zera mekin...
- Garbiketari 1 -Ori gezurra den1(bulla ta zarata danak)
- Garbiketari 5 -Eta senarrak?
- Garbiketari 3 -Benarrak lilotu egin den...Eguzkitako meskerra zirudin...(Parre)
- Garbiketari 1 -Ori dana orpo gorri batzuekin antolatuko ukene...
- Garbiketari 2 -Ez dutela aurrik...zer egingo zaion ba...Etsi egin bear...
- Garbiketari 4 -Etxe ark impernua zirudin.Egunetik egunera okerrago.Iru emakumeak aorik iriki gabe...ez ta itzerdirik ere alkarri.Egunak eta egunak ormak zuritu,solairuari argizaia eman,pertz-gorriak garbitu.Etxea zenbat eta argiago ta barrendik kixkalgarriago.
- Garbiketari 1 -Senarrarena errua,arentxena.Aita batek seme-alabarik eman ez ba du emaztea zaitzen jakin bear din.
- Garbiketari 4-Errua emaztearena...Mingain ordez tximistarria dulako.
- Garbiketari 1-Jakin al ziteken,ille artean zer deabru sartu zaiñan orrela itzegiteko ?
- Garbiketari 4-Eta zeñek eman zion ire aoari,baimena,esan bear detana neri erakusteko?
- Garbiketari 2-Ixildu zaitzete...!
- Garbiketari 1-Galtzerdi burni goriz,kordatuko netxetiken nik mingain luze berritxuak
- Garbiketari 2.- Ixiltzeko ba...!
- Garbiketari 4 - Bai ta nik sabel zurien bularazalak
- Garbiketari 2 - Iiiiiixo! orra nun datozen koñatik...(Ezkonaizpak)

- Koiñatak - (Txutzuzutzuka...Yermaren bi ezkon aizpak aartzen dira...biak beltzez jantziak.Garbiketari asten dira...ixiltasun aundia...Arran-bulunbak en tzuten dira!
- Garbiketari 1- Aral Bai al dijoakizu artzai-mutillak?
- Garbiketari 3- Bai, oraintxe erteten artalde guztiak.
- Garbiketari 4- Neri ardi-usaiak on egiten.
- Garbiketari 3- Bai? E...?
- Garbiketari 4- Eta zergatik ez? Ayentzen tartean oitua...Ibaiak neguan dakarren lokatz gorriearen udaia ere eder zaidan.
- Garbiketari 3- Apetak ditun oyek...
- Garbiketari 5- (Begiratuaz) Artalde guziak batean zijoazen.
- Garbiketari 4- Orixe artillezko ujoldea! Aurrean artutako guztia errekatzen dute.Gari ezeak burututa baleude,dardarka lirake burutik oñetara.
- Garbiketari 3- Oieķ daramakiten abantara ta zarrapastada...Ori da etsai taldea...ori...!
- Garbiketari 1- Ba dijoaz artalde danak...Batek ere utsegin gabe...
- Garbiketari 4- Egia...danak...ia...ia...danak ote gero...ez...ez...batek ute egin du.
- Garbiketari 5- Norenak...?
- Garbiketari 4- Bitor´enak(Bi ezkon-aizpak buruak luzatu ta begiratzen dute)

Erreka ur otzetan  
Ire galartzua garbitu.  
Ire parreak  
Urkitz beroa iduri.  
Bizi egin nai  
Urkitz oñen.  
Elurte tipian.

- Garbiketari 1- Emazte agorra erruki...!  
Ondarrezko bularrak ere bai!
- Garbiketari 5- Esaidan ire senarrak  
azirik gordetzen dun  
urak abestu dezan  
ire atorrean.
- Garbiketari 4- Zillarrezko ur-ontzi  
Etzeetan aize  
ire ator(eze)
- Garbiketari 1- Gure aurtxoaren zapiak  
Garbitzera natorkin  
Urak artu ditzan  
ikasbide gardenak

- Garbiketari 2- Bazetorren menditik  
senarra bazkaltzera  
Ark arrosa bat ekarri  
nik iru eman.
- Garbiketari 5- Zelaitik barrena apaltzera  
senarra etorri  
Emandako txingarrak  
ostos estali.
- Garbiketari 4- Aizetan barrena  
senarra etorri lotara  
Nik kuku-praka gorrik  
ark kuku praka gorri.
- Garbiketari 1- Lorea loreari ezarri bear  
Udarak segalariari odola agortzean  
Negua dardarka ate joka datorrenean
- Garbiketari 4- Txori lo urriel sabela iriki
- Garbiketari 1- Maindirean intzira egin bear.
- Garbiketari 4- Eta abestu egin bear
- Garbiketari 5- Senarra koroa ta ogia dakarkigunean
- Garbiketari 4- Besoak korapillatzen
- Garbiketari 2- Argia eztarrian zartatzen
- Garbiketari 4- Landare gerriak gozatzen
- Garbiketari 1- Aize estalpeak,mendiak estali
- Garbiketari 6 (Ujoldearen garaikaldean azaltzen da)
- Garbiketari 6- Goizaldiko aintziarrak aur batek urtu ditzan
- Garbiketari 1- Gure soñak izaki koral adar asarreak
- Garbiketari 6- Itxasoko uretan arraunlariak ditezen
- Garbiketari 1- Aur txiki bat,ume bar arren...
- Garbiketari 2- Mokoia ta egoak,usoak iriki
- Garbiketari 3- Intziri egin gai dan seme alaba.
- Garbiketari 4- Basaauntz zaurituak lez gizonak aurreratzen dira.
- Garbiketari 5- Ator peko sabel borobillaren.Poza paza ta poza
- Garbiketari 2- Alaitasuna,Alaitasuna,mirarizko odol-ontzi guriya,txilborra.
- Garbiketari 1- Zorigaiztokoa emazte legorrai Errukarria,ondar-bulardunai
- Garbiketari 3- Dir-dir egin dezala!
- Garbiketari 2- Dabillela azkar!
- Garbiketari 5- Berriro argitu dedilla!
- Garbiketari 1- Abestu dezala!
- Garbiketari 2- Izkutatu dedilla!

Garbiketari 1- Berretan abestu dezala.

Garbiketari 6- Mantalean nere aurrak. Daraman egun sentia.

Garbiketari 2- (Danak abesten dute)

Erreka ur otzetan  
ire galartzua garbi  
ire parreak  
urkitz beroa iduri.  
Ja,ja,ja !!!

(Danbaka neurtuan,zapiak astintzen dituzte)

BIGARREN LAUKIA

(Yerma´ren etxea.Illunabarra.Jon exerita dago.Bi arrebak zutik)

- Oraindik orain atera dala beraz?(Arreba zarrenak buruakin erantzuten du).Iturrian izan bear du.Badakizute ez ditala onik egiten bakarrik ertete orrek.(Ixil-unea)Maia jarri dezaken(Arreba gazteena irteten da) Jaten dedan ogia ondo irabazia...(Beste a arrebari)

Atzoko eguna gogortxo orraatik!Sagarrondoak iñauten jardun niñunan.Illunabarrian gogoetan berriz...Gaba,gogopenen ama.Lanean orrenbeste zertako,zagarrik aora ezin - eraman ba diñat.Okitua natxion.(Eskua arpegia-igortzita.Ixil-unea) Zuetako batek jo an bear likin beti dijoan tokira.Ortakotxe zaudete emen Ortarakotxe...gure maian jan da edan egiten.Nere bizikera alorrean zegon baña nere izen ona emen.Eta nerea izaki zuena ere.(arrebak burua makirtzen du) Ez ezan gaizkitzat artu.

Yerma sartzen da bi txantxillekin.Atean galditzen da) Iturritik al zatoz?  
Yerma -Bazkaritan ur otza edan dezagun.(Beste arreba erten egiten da) Ta lur oyek nolatan dijoaz ba...?

(Yerma´k ontziak utzi egiten ditu) (Ixil unea)

Jon - Atzo zugaitzak iñauten jarduna nauzu.

Yerma - Gaur emen izango zaitugu.

Jon - Abereak zaitu bear ordia...

Yerma - Oso ondo dakit.Ez berretan esan.

Jon - Gizaseme bakoitzak bere bizikera.

Yerma - Eta emakume bakoitzak berea.Ez dizut nik arrenes esango geldi zaitiala.Zure arrebak ondo zaitzen naute eta bear dedan guzia,badaukat emen.Ogi-érre be - rria gaztanbera, ta arkume errea jateko eta zure abereak berriz intzez ezku tatuko larre gozoa mendian.Bizi zaitetzka pakean.

Jon - Pakean bizi izateko lasaitasuna bear.

Yerma - Eta zuk ez al dezu?

Jon - Ez,ez nago lasai

Yerma - Sayestu asmoa.

Jon - Oraindik ez al nauzu ezagutu?Badezu ba nere izakeraren berri.Ardiak eskortan da emakumeak etxean.Zu, geitxo zabilta etxetik at...Amaida aldiz entzun izan dizazu ba.

Yerma - Orixe...Emakumeak beren etxetan sartuta.Baña ortarako etxeak ez iduri bear - illobiak...Ortarako aulkiak puskatu ta izareak sartu bear erabillian erabilli an erabilliaz.Emen besterik izaki...

Gauero lotaratzerakoan,oia gero baño gero,berriago ta gerbiago...

Egun artan erosi dala dirudi.

Jon - Zeorrek artzen dezu ontzat nik esana...Badetala zergatik ernai ibilli.

- Yerma - Ernai, zer dala ta? Ez dizut nik gaitzik egiten. Zure menpeko bizi naiz eta nai gabeak, onez etamaten ditut, bakarrik, nere errayetan ondo ezarriak. Onela bagoaz, egunetik egunera okerrago. IXildu gaitezen da kito. Nik alegiñak egingo ditut nere gurutzera al dedan ondoena eramaten eta ez zaidazu ezer galdetu. Bat batean zaartu albalegi... Mastrikatutako lorearen antzera aoa biurtu albalezaio, bati orduan errezago alkar eraungo ganuke... Orain utzi nazazu neure aran tza ta guzti...
- Jon - Ez dakit nola itzegiten dezun... Ez naiz konturatzen... Aoa zabaldu orduko, gura dezun guzia aurrean dezu. Besterik ezin bada, auzo errietatik akarri ta ala ere ezin asmaru det. Nik badakit baditut nere akatsak baña zukin, pakea ta baretasu na nai ditut. Etxetik at lo egin nai det, baña zu lotan zaudela ziurki jakinda.
- Yerma - Baña nik ez det lorik egiten. Ezin egin det lorik.
- Jon - Ezeren bearrik bai al daudazu... 'Esaidazu... Erantzun...!  
(Yerma k intenzioz eta begietara begira begira dula)
- Yerma - Bai, ... zerbauteb bearra bai... bearra...
- Jon - Joan diran bost urte auetako lelos... Neri ez dit ia erasaten.
- Yerma - Baña ni ez nauzu zu. Gizonezkoak bere bizikeran beste milla katramilla dituzte abereak, zugaitzak, izketaldiak... Emakumeak berriz aurra gora ta aurra bera.
- Jon - Danak ez gaituzun berdin. Ekarki zazu anaiaren txiki bat. Nik ez dizut eragotzi ko.
- Yerma - Ez det besteren seme-alabarik zaitu nai. Besoak sominduko litzaizkidake besteren batetik.
- Jon - Zere aje ori dala ta, erotuta bizi zera... bear zenukenik egin gabe. Arkaitz zu loan sartu nai dezu burua.
- Yerma - Bai ta arkaitz zulo ofek, arkaitz ordez, lorez eta ur gozoz batetako saskitxoak bear luke.
- Jon - Zure ondoan ez dago bizi izaterik. Ezin-egona ta kezka sotu-azten dizkidatzu. Etsiba sikira.
- Yerma - Ez naiz ni lau orma auen artean atsitzeko etorria. Aua ez irikitzeke zapiz ilkutxaren barruan eskuak lotzen dizkidatenean, orduantxe etsiko det, bitartean ez.
- Jon - Orduan zer egin nai dezu?
- Yerma - Ura edan nai nuke, ta ez dago, ez urik ez edontzirik. Mendira igo nai ta ofik ez. Nere gonak apaindu nai ta aririk ez.
- Jon - Emen gertatzen dana da, etxerala zu bear bezelako emakumea. Boronde auleko gizo na ondatu nai dezu.
- Yerma - Nik ez dakit nor naizen. Barren zu zabaldu ta lasaitu nai nuke ta utzi nazazu nere kasa. Nik ez dizut ezeren okerrik egin.
- Jon - Baña jendeak eskuaz erakusten nau, eta nik min artzen. Orregatik ate ori itxia ikusi nai det, eta txori bakoitza bere kabian.  
(Lenengo afeba azaltzen da makal makal eta ontzi aldera dijoa)

Yerma - Jendeakin itzegitea ez da pekatu.

Jon - Baña itz-bidea jartzea da!

(Beste arreba erteten da,ontziak dauden lekura joan txarroa betetzen du)

Jon - (Abotza jetziaz) Nik ez daukat ortarako adorerik eta indarrik izketan asten zaizkizunean,asa itxi ta gogoratu emakume eskondua zerala.

Yerma - (Arrituta) Ezkondua...!!!

Jon - Eta sendiak izen onaren jabe dirala ta izen ona danon artean eraman bear de gun zama,pixua izan(arreba makal makal txarroa eskuetan dula dijoa)Baña illu na ta aula dagola,odol bideetan bertan.

(Beste arreba erteten da eskuan ontzi bat eramannaz procesiyuan balijoa bezelaxe.Ixil unea) Barka nazazu.

(Yerma`k senarrari begiratzen dio.Onek burua jasotzean emaztearen begiratu aurrez aurre arkitzen du.) Begiratuta ikusi ta ez nizuke esan bear,barkatze ko,beartu,giltzapetuegin bear ziñuket.Ortarakotxe nauzu zure senar.

(Bi arrebak ateetan azaltzen dira)

Yerma - Ixildu zaitia arren...Utzi dezagun ezta baida au.(Ixil unea)

Jon - Goazen bazkaltzera..(Arrebak sartzen dira) Entzun ?

Yerma - (Gozoro) Bazkaldu zazu arrebakin...Ni ez naiz oraindik gosetu.

Jon - Nai dezun bezela...(Sartu egiten da)

Yerma (Amestsetan lez)

Ai belardiaren oñazea!

Edertasunari itxitako atea!

Aurra eskatze-,naiz nekeak bezi ta aizeak,

illargi geldiko liliak eskeintzen-

Nik ditudan esne epelezko bi iturburu auek

nere aragi trinkoan, atsekabe adarra taupadaka

asi asten duten bi zaldi pulsu dituzute-

Ai,nere soñeko azpiko bular itxuak!

Ai,zuritasun eta begi gabeko usotxoaki

Ai-esitutako odolaren oñazea!

Garronfoan liztorrak ari zulaka!

Baña ik etorri bear dek,kutun,ene aur.

Urak gatza ematen,lurrak igaliak

eta odeiak sabeletan ura daukaten lez,

gure sabelak aur guriak gordetzen.

(Ate aldera begiratuaz)Miren!Nolatan oa orren azkar,ate ondoan igaro bear da?

(Miren sartzen da aurra besoetan dula)

Miren - Aurrakin noanetan bakarrik...Negarrak erteten din da...

Yerma - Ala den.(Aurra artuta ta exeri egiten da)

Miren - Illundu egiten natxian ire bekaezkeriak...

Yerma - Ez den,inbiria beañaden...

- Miren - Ez adi naigabetuko. I ta beste emakumeak ikusten zaituztet, barrendik lorez beteak eta ni orrenbeste edertasunen erdian ezereza, agorra...
- Miren - Ik beste batzuk ditun. Entzungo bañiñuken, onenean zoriontsu.
- Yerma - Seme alabarik ematen ez dun nekazariaren emaztea, eskukada elorriaren antzekoa den. Gaiztoa gañera, neu. Jainkiak eskutik utzitako ondarkiña izarren.  
(Miren'ek aurra artzeko imintzioa egiten dio)
- Yerma - Ar zan bai. Ikin, pozik zion. Nik ez nunbait ama-besoak.
- Miren - Zergatik dion ori?
- Yerma - (Jeikiatz) Aspertua nagolado, Beso jabe izan ezin erabili neure zaretan. Minbera batxion, oso minberatua, askenengo mallaraño beeratua. Ikusi, gariak burutzen, iturriak ura ematen, ardiak eunka arkume egiten eta zakurrak... bazirudin, landa osoa zutitu ta bere ume guri, lotiak erakusten dizkidala, nik neretxikiaren aoa arkitu ordez, bi mallukada nabaitzen ditudan bitartean...
- Miren - Ez zidan onik egin orain esan dedanak.
- Yerma - Aurrak dituzuten emakumeak etzerate konturatzen ez dauzkagunokin. Ur gezetan - igarian dabillek egarririk ez dun bezela gelditzen zerate, ez jakin da ezeak.
- Miren - Zertako esnago diñat eguneroko leloa.
- Yerma - Egunetik egunera, irriki aundiagoa ta otxaropen txikiagoa.
- Miren - Ez den belar ona.
- Yerma - Azkenik neu, neronen semea naizela uste izango diñat. Azkotan ukulluratzen naun idiai bazka botatzera. Len ez niñan iñoiz egiten, emakumeak ez diñe egiten da e eta zubi illunean barrena noala nere urratsak gizonezkoarenak ziruditen.
- Miren - Bakoitza gaitun adimendu.
- Yerma - Esnak esan, maite mazan. Ezagutu den nere bizikera!
- Miren - Eta ire ezkonaispak, koñatak?
- Yerma - Il nadilla berton, itz-erdirik egin badiet.
- Miren - Ta senarra?
- Yerma - Iru ditun nere aurka.
- Miren - Zer diote. Zer darabilkite gogoan?
- Yerma - Irudipenak. Barrunbea, kontzientzia lasai ez daukatenen irudipenak. Beste gizonezkoan bat gogoko izango ote zaidan bildur ta alaxe izan da ere, oiek ez jakin gure jatorrikoak bekokiaren daramakigula izen ona, garbitasuna. Nere aurrean arri dirala baña jakin dezateka nai eskero, aurrean eraman ditzakedan arreko ura nintekela.  
(Arreba bat sartzen eta ogi bat artuta ta irten)
- Miren - Ala ere zure senarrak maite zaitun ustean nago.
- Yerma - Senarrak ogia ta etxepea ematen dizkit.
- Miren - Gorriak ikusten ari aiz kotaru ori! Gogoko itzan Gure Jaunaren zauriak.  
(Ateetara iritxi dira.)
- Yerma - (Aurrari begiratuaz) Esnatu den.
- Miren - Aurki asiko den armonian...



Yerma - Ire begi berdiñat dizkin. Bai al ekiñan? Ikusi al dizkion?

(Negarrez) Ire begi berberak! (Yerma´k Miren´i bultzatzen dio poliki ta Miren ixil ixilik erten egiten da.

(Yerma bere senarra atera dan aterunz dioa)

Neska 2- Txiiiiisssss!

Yerma - (Jiratuaz) Zer da?

Neska 2- Txendanan. Gure ama zai daukazu.

Yerma - Bakarrik al zion?

N. 2 - Bi auzo lagunekin.

Yerma - Itxoiteko pixkabatean.

N. 2 - Baña bai al oa? Ez al aiz bildurtzen?

Yerma - Banatxia bai.

N. 2 - Or konpon!

Yerma - Itxoiteko, berandu banao ere. (Bitor satzen da)

Bitor - Emen al degu Joan?

Yerma - Bai

N. 2 - (Estaltzalle) Orduan gero ekarriko diñat gona)

Yerma - Nai denanian. (Neskatxa atera egiten da) Exeri zaitez.

Bitor - Onela ondo nago.

Yerma - (Deika) Joan...!

Bitor - Agur egitera natorkizuten... (Dardartxo ba du baña bereala lasaitzen da)

Yerma - Senideekin al zoaz?

Bitor - Aitak ala nai du ta.

Yerma - Ura ere zartu...

Bitor - Urteak oan bizkarrean... (Ixil unea)

Yerma - Lekuz aldatzea ongi derizkiot.

Bitor - Toki danak berdiñak dirala, orixe...

Yerma - Bai zera... ni pozik urrunduko nintzake.

Bitor - Ez al dira ba baztar guztiak berdiñak? Ardi guziak artille berdiñameten dizute.

Yerma - Gizonentzat bai. Emakumeak besterik gaituzu. Ez diot sekula otordu garaian, zueta ko bati onelakorik entzun. Auetxek dira sagarrak, auek! Zeonera jotzen dezute - besteentzat gegirunerik gabe. Nik nere buruagatik esan dezaizuket, putzu auetako u ura gorrotatu egiten dedala.

Bitor - Baditeke...

(Erdi illunean daude)

Yerma - Bitor

Bitor - Ezaidazu

Yerma - Zergatik zoaz? Emengo jendeak maite zaitu.

Bitor - Nik ere zintzo jokatu izan det beti. (Ixil unea)

Yerma - Gizonki jokatu izan dezu bai... Mutikoa ziñala, ...bein... besoetan ibilli ninduzun Gogoratzen? Ez jakin beñere zer gertatu diteken...

Bitor - Dana aldatzen da, mundu ontan.

Yerma - Ba da aldatzen ez dana ere.Orma artean itxita daudenak,ezin aldatu ditezke,  
iñork ez bai ditu entzuten.

Bitor - Ori ola da.

(Arreba gazteena azaltzen da ta poliki ateruntz dijoa.Antxe egiten du tink,  
illunabarreko argiak argitzen dula)

Yerma - Baña bat batetan atera ta deadar egingo balute,ludia beteko luteke.

Bitor - Ez litzake ezer aurreratuko.Erreka bere bidetik,artaldeas saletxean,illargia  
zeruan da nekazarian goldean.

Yerma - Biotz-min aundia ematen dit,gure aurrekoen erakusketak ezin aditu al ezatea.  
(Artzauen itxas maxkarren zoñu luze ta goibela entzuten da)

Bitor - Artaldeak

Jon - (Erteten da)Ekin al diok bideari?

Bitor - Bai ta eguna arratzerako mendi-lepoa igaroa nai.

Jon - Gizonki jokatu al diat ikin?

Bitor - Patzalle ona izan zera.

(Jone´k Yerma´ri)

Jon - Artaldeak erosi dizkiot.

Yerma - Beraz!

(Bitor´ek Yerma´ri)

Bitor - Zureak dituzu.

Yerma - Ez nekin.

(Jon satisfecho)

Jon - (Doatsu) Orrela da.

Bitor - Zure senarrak etxaldia ederki azi ta ugaritua ikusi bear du.

Yerma - Uzta,billa dabillen nekazariaren eskuetara etortzen da.

(Atean dagon arreba sartu egiten da)

Jon - Orrenbeste ardi gordetzeko lekurik ere bai al degu ba?

Yerma - (Itzal) Mundua aundia da.

(Ixil unea)

Jon - Errekaraño alkarrekin joango gaituk.

Bitor - Etxe onatxoai zorionik aundiena opa dizutet.

Yerma - Jainkoak entzungo al dizu ba! Osasun !

(Bitor´ek arteera ematen dio eta Yermaren imintzio txikienera,jiratu egiten da)

Bitor - Zerbait al zenion?

Yerma - (Antzerki doayez) Osasun esan det.

Bitor - Eskerrak.

(Erten egiten dira.Yerma,bildurtti,Bitor´i eman dion eskuari begira.Yermakarin  
arin ezker aldara jo ta mantoia artzen du)

Neska 2-Goazen (Ixilik burua estaliaz)

Yerma - Goazen (Ixilka erteten dira)

Erakuslekua erdi illunean dago. Arreba zarrena erteten da, krisallua eskuetan dula. Ez dio erakuslekuari argitik eman bear krisalluak bakarrik ematen duna bakarrik ematen duna bakarrik baizik. An dioa Yerma´ren billa. Artaldea, itxas maxkar soñua entzuten da.)

Arreba Z - (Erdi txillean) Yerma!

(Beste arreba erteten da, alkarri begiratu ta ate aldera dioaz)

Arreba 2 - (Agitzako) Yerma!

Arreba Z - Aterunz joan eta agintzalle) Yerma!

(Artzaien itxas-maxkarrak eta adarrak entzuten dira. Erakuslekua illun illuna...)

#### EZKUTAZAPIA

IRUGARREN EGINTZA

Lenengo laukia

(Nekane azpikariaren etxea.Goiz arratzea da.Nekane ta beste bi atsokin,Yerma sartzen da)

Nekane - Kementsu orraatik ere.

Atso 1 - Nai izateak bezelako indarrik ez din! ezer mundu ontan.

Atso 2 - Il erria etzetxegonan ba argia...Alako illuntasunik...

Nekane - Amaika aldiz jarduna ni an erreztatzen aur irrikiz zeuden emakumekin... Aiek ere bildurtu egin oi itunan,baña i ez.

Yerma - Tira nik gerokoan billa etorri natzaizu ta zu etzera gezur jario oietakoa.Nik ala uste beintzat.

Nekane- Ez,ez naun ta iñoiz gezurrik esan ba det,lurpean daudenaon antzera bete bedi txingurrik nere mingaña.Orain urrengoan zerakin jardū niñunan otoitzean, i baño luzaragoan antzu zebillen eskale batekin.

Sabela ederkitxo gozatu ez bazitzaion ba.Bixkiak izan zetifian,iñora joateko be tarik ez eta ortxe erreka ondoan jaiioak.Artu aurrak mantalean eta amak berak ekarri zizkudanan garbi nezaizkion.

Yerma - Erreka ondotik oneraño oñez etorri al zan ?

Nekane- Bai, ba.Gona ta oñetakoak odoletan blai,baña arpegia dizdiratsu.

Yerma - Ez al zitzaion ezer gertatu ?

Nekane- Zer gertatu bear zitzaionan.Jainko den.

Yerma - Noski,Jainkoa,Jainko eta ezin ezer gertatu.Artu txikiak eta ur beziz garbitu bear,Abereak berriz miaztu egiten dituzte,ez al da ala? Ez niñueke ni nere txikiak nazkatuko.Nik uste aurra egindakoa barrendik goi-argiak jota dagola,eta ume gaxoak antxe amakin lo ta lo,esne epelez bularrak betetzen dituzten erreka txoen pollpolla entzenez.Ase bete egindakoa,jolas tori ta tati titia artu ta utziaz. "Tira kutun,beste zurrustatxo bat" arpegia tanta zuriz bustita.

NEkane- Oraintxe abaitu diñat alako zerbait...Semea edo alaba izango den...Ziur natxion.

Yerma - Izango det bai,nai ta nai ez izan bear dedalako, edo ta ez zait mundurik buruan sartzen.Batzu batzutan etsipenak mendaratzen naunean,oñetatik gora dijoakitan su garrak,zearo ustu ta uzten nau.Orduan netzat,gizakiak,abereak eta arriak aparezkoak iduri.Nere buruari galde egiten diot:Zertarako ote daudeor jarriak?

Nekane- Eskonduak aurrak nai izatea bidezko den,baña ez baldin badatoz,orren bestiko irrikia ere...Luzaroan bezi izateak ematen zizkigun lanak,eta uraxe izaki garrantzikoena.Ala ere ire naia diñat gaizkitzat artzen.Otoitzak egiten eten lagun egin diñat...baña zer demorrio .Uzteko asmotan abil ire ondorengoari... Zer ibar,zer zorion edo zer zillarrezko aulki?

Yerma - Utzi geroari gaur bizi bear degu ta. Zu zaartu atsotu egin zera ta dana bada-  
kizu.Ni berriz egarri naiz eta ez daukat askatasunik.Nik nere aurra besoetan  
euki nai det, lasai lo egiteko ta entzun nazazu, etsaitez izutu: Orainditxek ba-  
neki ere, nere seme edo alaben batek, naigebetu ondoren gorrotatu eta azkeink  
tximetatik eldu ta kalez kale arrastaka erabilliko nindukela, poz pozik artuko  
nuke aren jaiotza, ohea bai da, zorigaiztoko bizi dan bategatik negar egitea ta  
ez urteetan biotzean exerita daukadan mamu onengatik.

Atsoal- Gaztetxoa oraimdik besteren enana ondo artzeko, baña Jainkoaren grazi zai zau-  
den bitartean, senarraren maitasungan babestu bear dezu.

Yerma - Ai, oraintxe ikutu nere aragiak daukan zauririk sakonena...

Nekane- Ire senarra ona den.

Yerma - (Jeikiatz) Ona da! Ona da! eta zer! Gaiztoa balitz obe! Bañe ez.

Egunez, bidez bide bere ardiakin, gauez diruak kontatu. Nerekin dagonean, bere egin  
bearra bete, baña nik gerri-otz nabaitzen.

Illik bai ederragorik. Nere bizi pzoan emakume sutsuak, nazkatu egin izan naute,  
baña une artan bere buruak su-mendia bear luke.

Nolor - !Neska!

Yerma - Ez nauzu emakume ezkondu zirtzil oyetakoa. Baña nik jakin, giza emakumegandik  
jaiotzen dirala aurrak. Nik bakarrik izan al banitz.

Dolor - Senarrak ere penatxo izango din. Konturatu adi.

Yerma - Ez zan esan orrelakoriki

Yerma - Begiratuan ezagutzen det. Ez du ume-miñik eta utsa. Ez maite, ta ala ere, uraxe  
nere salba-bide bakarra. Garbitasumez ta jatorriz.

1-Atso- Aurki egun sentia. Etxeratu egin bear zenuke.

Dolor - Berealaxe ditun or artaldeak. Ez den egoki i alderdi austan bakarrik ikustea.

Yerma - Lasai aldi au bear nun. Zenbat aldiz agin bear ditut otoitzak?

Dolor - Erramu otoitza bi bider eta eguardian, Santa Ana ren otoitza, eta exur berriak  
ditunarian, ekarriko didan agindutako anega gari.

1-Atso Mendi gañak argitzen asi ditun. Ua.

Dolor - Berealaxe asiko ditun gurdi-ateak irikitzen eta oa erreka inguratuaz.

Yerma - Ez dakit zertako etorri naizen!

Dolor - Damutu?

Yerma - Ez i

Dolor - Bildur ba aiz, neuk lagunduko aunat

1-Atsoa- Etxera orduko eguna argitzen asia

Abotsak entzuten dira

Dolor - Ixo! (Entzunaz)

1 Atzo- Ez da iñor oa. Jainkoak laguni Yerma ateruntz dijoa. Une artzantxe ate joka  
iru emakumeak bertan gelditzen dira.

Dolor - Nor da!

Abotsak- Ni nauzu.

Yerma - Iriki zazu (Dolores zalantzan) Irikiko al dezu ala ez!

(Itz otsak entzuten dira-JUAN eta BI KOÑATAK

Koñata - Emen dago

Yerma - Emen dago

Juan - Zer egiten dezu leku ontan? Deadar egin albaneza erritar danak jaiki aziko nituke, ikusi zezatela nora zijoan gure etxeko izen ona. Baña ixildu egin bear dana bertan bera ito, bere emazte zeralako.

Yerma - Nik ere al baneza deadar egingo nuke, lurpean dauden guziak jeiki ditezen. Ikusi zezatela nere burutik berako garbitasuna.

Juan - Ez, ori ez! Gañentzeko guziak burutzea tira, baña ori ez. Atzipe tu ta nastu - egiten nauzu. Nekazari gizajo onek ez jakin bear zure maltzujeriri aurre ema ten.

Dolor - Tira Juan!

Juan - Zu, ez da itzerdirik ere!

Dolor- Zure emazteak ez du ezer txarrik egin.

Juan - Ezkondu zan egun beretik ari da. Begi ordez bi orratz begietan.

Gau ozoa lo urri, nere aldamenean begiak zabalik eta intziri gaiztoz burkoa betezten.

Yerma - Ixildu zaituz!

Juan - Altzairuzkoa bear luke batek, orrelako emakumea aldamenean burutzeko. Biotzera ño sartu nai dizkkitzu beatzak eta gaez etxetik at ibilli. Zeren billa? Kelak mandoz beteak daude...ez dago lorerik biltzeko.

Yerma - Ez dizut itzik esaten utziko! Ez da bat bakarrik ere. Zu ta zureak uste dezute, zuek bakarrik zaratela izen onaren jabe. Jakin zazu ba, gure natorriak ez dula iñoiz ezer ezkutatu bearrik izar. Tira urbildu ta usai egin nere jazkiari. Urre ratu zatzakit zure usaia, zure gorputz usaia ez danik artzen badezu, emparantza erdira eramen, billutsik jarri ta isekatu nazazu. Egin nai dezuna nikin, ortarakotze nauzu emazte, baña Jainkoak mgoarda zaitzala, nere bular gain, gizaseme ize nik eraste badezu.

Juan - Ez naiz ni erantsi dizuna, zure bizikerak zeuk ezarri diozu zure buruari, ta e - errian itz bidea jarri dezu. Asi dira txutxumutxuka. Asi dira argi ta garbi esaten. Gizataldean sartzen banaiz, danak mututu. Errotara noanean, danak izildu. Gau - ezn mendian esnatzen banaiz ere, zugaitz adarrak ixildu egiten dirala iduri.

Yerma - Aize beltzak ez al du iñoiz gaisorik irauli ta ondatu. Eta nork esa garia gaiztoa danik.!

Juan - Nik ez daki emakume bat gau te egun zeren billa ibilli diteken etxepetik at.

Yerma - Zure billa (senarra besarkatzen du) Zu arkitu nai zaitut. Gau ta egun zu billatu nai ta ezin arkitu itzal izpirik ere atza artzeko. Zure odola ta zure babesari nai nituke .

Juan - Alde hemendiki

Yerma - Ez nazazu aldendu... atozkit.

Juan - Utikan !!

Yerma - Bakar bakarrik gelditzen naiz..zuitz.Illargia zeruan bere buruaren billa ba  
lebil bezela.Begira nazazu !

Juan - Utzi nazazu bein betiko ! ...

Dolor - Juan ! (Yerma lurrera erortzen da)

Yerma- Nere krabeliñ billa ni joala,arresia aurrez aurre.Ai ene! arresi orrengan nere  
burua apuztu bear.

Juan - Ixildu ! Goazen.

Dolor- Jainko maitea !

Yerma - (Deadarka) Madarikatua aita! eun seme alaben odola ezarri zidalako! Zorigaizz  
tokoa ama.orma-jokabillatzen ditulako.!

Juan - Ixiltzeko agindu det!

Dolor - Norbait dator-Itzegin ixiltzio.

Yerma - Neri bost ajola! Utzi zaidazute asko nere abotsa.Putzuaren il une ontan,  
besterik ez ba da ere abotza! Nere soñetik arten dedilla abots ederra ta bete  
dezala egiratsa-

Dolor - Emendik barrena joango dira.

Juan - Txoooo...

Yerma - Ori,ori ixillikan...! ez arduratu !!

Juan - Goazen azkar

Yerma - Orra,Eta alperrik eskuak biurrituta ere! Buruak nai,izan bat da..baña...

Juan - Ixillikan !

Yerma - Buruak nai izatea bat,gorputzak ez erantzutea bestea bizian madarikatua bedi  
gorputza! Orain ni itxaszabalean burrukatea,alperrik da ta kito! Mututu bedi ne  
re aoa.

IRUGARREN EGINTZA

Bigarren laukia

Basa-eliza inguruan.Mendi mendiya.Aurre aurrean,gurdi kurpillak eta estalki batzukin landetxeko etxola.Antxe dago Yerma.Emakumeak oñutsik emait zak daramazkie elizatzora. Antxe aurrean dago lenengo egintzako atso alai ere.Abestu oyal.

Ekgongai ziñan arte

Etzinfufan ikusi

Eskondu eta gero

Arkituko zaitut.

Eskondua ta erromez

gau illunean

amabiak jotzean

ikusiko zaitut.

Atsoa - Edan al dezute ur bedeinkatua ? (Maltzurkeriz)

1 Emaku- Bai

Atsoa - Eta orain ori ikustea ?

1 Emaku- Orregan sinisten degu .

Atsoa - Doneari seme-alabak eskatzera etorri ta zer da,urteteik urtera erromea bezela ta bakarka gizon eskondu geyago datozela. Zer gertatzen dan emen.

1 Emaku- Zertara zatoz onera,sinisten ez badezu?

Atsoa - Ikustera.Zelemon egingo nikin ikustearren.Eta bide batez semea zaitzera. Igaz emakume antzu oyetako bat zala ta bi gizonen alkar il ziñenan eta nik zaitu egin nai.Ernai ibilli ete gañera zer? Gogoak ekarri azten natxian da kito.

1 Emaku- Zuk esaten dituzunak.Jäinkoak barkatuko al dizu.(Elizatzoran sartzen da)

Atsoa - Iri,iri barkatu bear dizkin. (Irri-mingarriaz)

(María sartzen da lenengo neskatxa arekin)

Neska - Eta etorri al den ?

María - Ara or gurdia.Neri kosta ori ekarri aztea.Illabete egin din aulkian zutitu eziñik.Bildurtu egiten natxian.Zerbaiten asmoa zerabilkin,baña etzekiñat zer dan.Nola nai ere asmo gaiztoa.

Neska - Ni aizpakin naun emen.Zortzi urtean etorri utsik egin gabe baña alperrik.Len bezin legor.

María - Seme-alabak,izan bear ditunak,bakarrik izaten dizkin.

Neska - Nik ere ori zionat.

(Itz-otsa entzuten da)

María - Errameri onek etzidan batere onik egiten.Goazin emendik larrañera.Jendea dago lekura.

Neska - Igaz,illunpetan mutil batzuk gure aizpari izu-aldi ederra eman zetzionean...

María - Inguru osoan ez den itz bildurgarririk besterik entzuten...



Neska - Eliza atzean,berrogei ardo-kupel baño geyago ikusi dizkiñat.

María - Mendian bera,gizon utsezko errekak zetozen.

(Erteten dira.Itzotsa entzuten da.Yerma beste sei emakumekin elizara dijoa.

Oñutsik eta eskuetan kandela apañak.Illunabarra.)

Yerma - Jauna.Loretu bedi arrosa-ondoã.Ez utzi arren itzalean.

2 Emaku- Bere aragi tximelean loretu bedi arrosa-oria.

Yerma - Eta zure otseñen sabalean.Lurreko gar illuna.

Emakume taldeak: Jauna,loretu bedo arrosa ondoa

Ez utzi orren itzalean

(Belaunikatu egiten dira)

Yerma - Zeruko loreteian  
arrosa ondo alaiak  
Arrosa ondo en artean  
arrigarrizko arrosa.  
Egunsentiko izpia iduri  
Asken arnas begidun  
zorigaitz egodun  
Goi-aingeruak zaitu  
Orri jiran saltaka  
Izar paketsuen arpegiak  
bustiaz,jolas  
esne epeldun errekatxoak.  
Jauna,iriki zure arrosandoa  
nere mami zimeletan.

(Jeiki egiten dira)

Emaku - Jauna,baretu zure eskuz,  
bere masail urduriak.  
Entzun,erromeri donera  
etorri dan damudunari.  
Milla arantza izan arren  
sortu azi arrosa nere aragian.

Emakume taldeak:

Jauna,loretu arrosa ondoa

Ez utzi arren itzalean.

Yerma - Nere aragi zimelean  
arrigarrizko arrosa.

(Sartu egiten dira)

(Sartu egiten dira)

(Esker aldetik neskatxa taldea korrika, eskuetan zinta luzeak dituztela. Eskubitik beste iru atzeraka begiratuaz. Antzestokian itz-otsak eta koxkabillo ta lepa zinzarri zara rata geitzen dijoa. Garai aldean, esker aldera lokarriak eragiñaz azaltzen dira. Ixkabi lla azi ta bi mamu (Maskara) azaltzen dira. Bat arraren irudira ta bestea emera. Arpegi estalki aundiak damazkite. (Arrak). Gizonak, zezen adarrak daramaki eskuan. Ez dira parregarriak, iñola ere ez. Lurraldeko kutsudun eder ederrak dituzute.

(Emeak) Emakumeak, koxkabil lodun lepoko aundia astintzen du. Atze aldean biltzen da jendea, bi oyen dantza ikusi ta batzuk maxiatu ta besteak eder iritziaz. Oso illundu du).

Aurra - Ara, deabrua ta bere emaztea! Deabrua ta emaztea !

Emakum - Malloko errekatxoan  
emazte goibela bustitzen  
Soñian gora igotzen  
uretako barekurkulluak  
Ertzetako ondarrak  
eta goizeko aizeak  
aren parrea sutzen  
eta sorbaldak dardaratzen.  
Ai !Neskatxa uretan  
Billutsik arkitzen !

Aurra -Atx egiten zun !

1 Gizona - Ai amodio zimel ai, ur eta aizetan, ai !

2 Gizona - Ezan dezala noren zai dagen !

1 Gizona - Sabel ziñel ai, arpegi makal , ai !

Emakume - Illunabarreen esango illargia erteteen.

Erromeri gaue iristean enere gonaren barrenak urratuko.

Aurra - Bereelaxe illundu laieterke gaua azaldu  
zeare illundu sendiko zurrutada.

(Gitarra soñua estzuten da)

Aurra - (Jeiki ta adarra dantzatuz)

Ai bai muria  
goibal ezkondua  
Adar artean intzirika  
Gero krabelin da anta lora  
Arrak kepa zabaltzean.

(Urbiltzen da) Erromerira bazatos

sabalean ernetzeko eskatzera  
ez, jantzi mentalia beltza  
bai arizko atorra biguna.  
Zoaz bakarrik arresi atzera  
pikondo mardulen tartera

Eruan nere lurrezko gorputza  
Egon an goizaldiko antai arte  
Bai dirdiratsu  
Ai bar argitsu

Goroeti ezearen antzera zimel emakume ezkondua.

Emakume - Maitasunak ezartzen  
koroak eta lore-uztaiak  
eta bularra zulatzen  
urre bizizko azkonak.

Aurak - Zazpi aldiz intziri egin  
Bederatzi jeiki  
amabost aldiz nastu  
urre-magarda urkitzak.

3 Gizona- Ekin ba adarrakin´

2 Gizona- Ekin arrosa ta dantza´

1 Gizona- Bai liraña emaztea´

Arra - Erromeri ontan  
gezonezkoa nagusi  
Senarrak zezenak izaki  
Gizonezkoa beti nagusi  
Erromes-zaleak lore  
beroganatzen ditunarentzat.

Aurra - Ekin aizeakin´

2 Gizona- Ekin adarrakin´

Arra - Atezte busti aldia  
artu zuna ikustera

1 Gizona- Zumea bezin zimel´

Emaku - Lorea bezin abaildua

Gizonak - Utikan neskatillak´

Arra - Erre didilladantza ta emazte lirañaren soin dizdiratsua.

(Dantzan ateratzen dira danak txaloka ta parrez ari diran bitartean.Abestu)

Zeruko loretegian arrosa-ondo alaiak

Arrosa ondoen artean arrigarritzko arrosa.

(Bi neskatxa deadarka igarotzen dira.Atso alaia sartzen da)

Atso aldia- Gerexie bada ere lo egiten utziko al diguzute,baña bai zera...gerora ta  
zarata ta izkabilla aundiagoa! (Yerma sartzen da) I emen! (Yerma abaildua  
dago ta itzik ez du egiten) Asaidan.Zertara etorri aiz ?

Yerma - Ez dakit

Atsoa - Ezin etsi? Ta ire senarra?

(Yerma arikatua,nekeaz galera bere burua.Asma gaizteen batek nastua dauka)

Yerma - Or da

Atsoa - Zer egiten din?

Yerma - Edan. (Ixil unea.Eskuak bekokira eramanaz) Ai ene!!!

Atsoa - Ai ene, ai eneinaioamorru gutxiyo ta adore geio.Lenago es diñat ezer esate rik izan,baña orain bai.

Yerma - Nik ez dakidan zerbait bai al dezu esoteko ?

Atsoa - Izilik gorde ezin ditekena.Tellatu gañean jarria dauana.Ire senarra arrua. Entzuten? Ez aitak, ez aitonak ez ta aitonaren aitak ere ez ziñenan gizonki jokatu.Seme bakarra isateko,zeruak eta lurrak bat egin bear izan ziñenan. Txistuz egiñak ziruditen.Ireak beste jatorrikoak izen ditun.Senideak eta len gusuak, eun legua bidean zabalduak dauzkan.Madarikazio ederra ire edertasunaren gain.

Yerma - Birdua.Galburuen gañera,ixtil poseiduna.

Atsoa - Zertarako ditun oñak...aldegin ba etxetik...

Yerma - Aldegin ?

Atsoa - Erromerian ikusi autenean,biotzak alaketxe sarrera egin sidan.Onera emakumeak gizonetzkoaberriak ezagutzera etortzen ditun eta Doneak mirariak egiten diskin. Gure semea eliza atzean exerita zion,zai...daukan...Etxean emakume bear gaitun. Oa arekin eta irurok bisiko gaitun.nere anaian semea bai,ura odolekoa den... Ni bezala...Gure atxoar sartuko baintzanako,oraindik ere seaska asaia zion.Ire estalkiko erreautza,txikientzat ogi ta gatz biurtuko zain...Tira...Jendearen marmarrari iru zur...Eta ire senarrarekikoak,guk egingo dizkiñagu.Ona emen e erraiak,eta etzean tresnaki ez din ez gure atarian nurrera egingo...

Yerma - Izildu maitez,ixildu! Ez det nai...Na nuke sekula egingo.Ni ezin joan naiteke iñarren billa.Beste gizona ezagutu nezakela,al deritzaizu? nun jartzen dezu nere garbitasuna.Joandako ura ez dago biltzerik,ezda eguerdian illargi bererik ere.Zoazkit...Nere bideari jarraiko diot.Txantxetan ariko zinan...beste gizon bat aitatsen.

Zuk uste al dezu beste gizon baten aurrean makurtu naitekela otseiña bezela nerea danaren eske joan? Ezagutu nazazu ondo bein betiko, geiago itzegin ez dezazun...Ni ez nabil billa...

Atsoa - Egarri danean,urari esker.

Yerma - Ni zoro edor bat bezela nauzu.Nilla idi pare ibilli ditezke goldean eta zuk eskeintzen didazuna,auxen da.Osiñeko entzitxo bat ur. Nerea oñazea da...Ara itik alde egin dun oñazea.

Atsoa - (Sendo) Or konpon ba,orrela nai baden,Zur legorreko kardu latza arantzaduna ta zimela.Itzuri-agori.

Yerma - (Sendo) Zimela bai,badakit.Iturri-agar! Ez da bearreko ezpañetan marruskatzea Mutiltzoak lez,ez etorri jolastera aberetxoaren asken arnasetan.Eskondu eskerro,itx ori ondo ezarria daukat buru-biotzat amaika jira bira eman dakoa,baña landabiziko aldiz gaur entzuna.

Ienengo aldiz arpegira bota...Orain,oraintze konturatu naiz,egin dala...

Atsoa - Ez naun batere errukitzen...ez da izpirik ere...

Arkituko diñat beste emakume bat nere semearentzat...

(Badijoa. Urrutira korua. Erromesak abestun. Yerma gurdirantz dijoa eta aren atzean senarra agaltsen da. )

Yerma - Or al siñatan ?

Joan - Emen negon

Yerma - Zelatan ?

Joan - Zelatan ?

Yerma - Entzun al dezu ?

Joan - Bai

Yerma - Utzi nazazu ta zeaz abestera. (Mantetan exertzen da)

Joan - Bada garaia nik itzegiteko ere.

Yerma - Mintzo ba.

Joan - Eta nere ataekabeak azaltsekoa

Yerma - Zer dala ta ?

Joan - Erresmina eztarrian daukat.

Yerma - Ta nik ezurretan.

Joan - Orra iritxi azken garaia. Ezin burutu det, etan gabeko lantu au.

Gure bizitzatik diranagatik, dizetan dabiltzanesanagatik, illuntasuna besterik ez dan...

Yerma - Bizitzatik at? Aisetan? Zer diozu?

Joan - Gertatu ez diranagatik bai eta zuk eta nik zuzentzen ez dituguragatik.

Yerma - (Bere onetik aterea) Esan ...esan...

Joan - Neri bost ajola zaizkidanagatik...Entzuten al dezu? Neri bost ajola zaizkidala Bada garaia argi ta garbi esateko... Neri esku artean darabilkidanak, ematen d dit kezka...bestek ez... Neure begiz ikusten dedanak...

Yerma - (Beleunikatzen da, deseparatuta) Orrela, orrela... Orixe entzun nai non zure españetatik...egia batengan dagonizn ez da nabaitzen, baña bai aundia ateratzen danean... Besoak jaso ta nolako deadarrak berak... Etzait ajolik...neri bost ajola...

Joan - (Urbilduaz) Orrek orrela bear du onezkero...Entzun...(Altxatzeko besarkatzea du) Zure bizikerun emakume bat baño geyago lirake zoriontsu seme alabarik gabe buruauste gutxiyo... bizikera gozoagoa... Ni berriz zorioneko ez izan da. Ez degu guk errurik ez nik eta ez zuk...

Yerma - Zer nai zenun orduan nigan ?

Joan - Zeu

Yerma - (Urduri) nori, etzea, lasaitasuna, emakume bat, baña besterik ez al da?

Joan - Egia da.

Yerma - Eta gañentzekoa...eta seme alabak ?

Joan - (Sendo) Ez al degu entzun etzaidala ajolik... Ez zaiduzu berriro galdetu. Zein betiko jakin dezazun belarrira esan bearko dizut... is beingoaz lasaitzen ote zeran!

Yerma - Eta nere zoriona jakinda, ez al dezu sekula nai izan.

Joan - Beñeraz.

(Biak lurrean daude)

Yerma - Etsi egin bear al det pa?

Joan - Bai

Yerma - Zuk ere bai?

Joan - Baita. Etsi zazu bein betiko.

Yerma - Zimela!

Joan - Orain bizi gaitezen pakea, bata ta bestea alkargunako zanurtnaun da bagi enez. Lastandu nazazu! (Bastertzen du)

Yerma - Zeren billa zatozkit?

Joan - Zu arkitu nai zaitut, au. Illargiten guztiz ederra zaude.

Yerma - Usez bat jan nai dezunean bezela, zateakit billa...

Joan - Laztandu nazazu... onela...

Yerma - Ori ez. Ez ta igundaio ere... (Yerma k kurrixka egiten du senarraren ez eztarria estutuaz. Au atzeraka erortzen da. Eztarria ito urte estutzen dio. Erromesak asten dira abesten) Zimela, bai zimela, baña denetik irten gabe. Oraintxe bai ez daukatela ez bairik. Eta bakarrik. (Jeiki egiten da, jendea dator kio) Atsedean artsera noa. Ez daukat orain taupadak a esnatu bearrik, odolak, beste odol berria ote dakarkida zai. Betirako iturri-agor. Zer jakin nai dezute? Ez Jainkuarren urbildu, semea el bai dut... Zeuk nere semea il...!

(Taldea atzean gelditzen da. Erromes taldeak abesten du)

AZKENA